



ARGIA


Munduko lehen potentzian ere eskuin muturra agintean

26-31. orrialdeak



Litekeena da Trumpek agintaldi osoa ez egitea. **J. D. Vance** izango da ondorengoa?

#2.893 | 2024 / 11 / 17 | 4,00 €



Valentziako hondamendia: lurra hormigoiz estaltzen denean

12 | INGURUMENA



"Zer egiten genuen emakume langileok emakume burgesekin manifestazioan?"

16 | JUANA DOLORES



Mobilizazio arrazistak Euskal Herrian: zer egin?

32 | GIZARTEA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #301
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



FERMIN MUGURUZAREKIN
ELKARRIZKETA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | IÑAKI BARCENA
- 23 | ARANTZA GUTIÉRREZ
- 24 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: **EMILY ELCONIN / BLOOMBERG**

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**



**12 | VALENTZIako
ESKARMENTUA: EMAN ARNAsA
LURRARI**

Urko Apaolazak Net Hurbil atalean jaso ditu Valentzian urak eragindako triskantzen aurrean, hainbat adituk eman dituzten azalpenak: zergatik bihurtu dira kaleak tobogan suntsitaile? Datuek erakusten dute lurra abiada bizian artifizializatu dela azken urteetan, eta ibai eta ubideei eremuak kendu zaizkiela eraikitzeko... Lurra ura xurgatzeko gaitasuna berreskuratu behar duela dio.

UNAI BEROIZ

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | JUANA DOLORES
“Neure buruari galdetzen diot zer egiten genuen emakume langileok emakume burgesen ondoan manifestazio berean”

Danele Sarriugarte

26 | NAZIOARTEA | TRUMPISMOA
Interes geopolitikoak printzipioen gaineratik
 Mikel Aramendi

32 | POLITIKA | MOBILIZAZIO ARRAZISTAK
Kointzidentziak eta galderak
 Zigor Olabarria

35 | INGURUMENA | MARTIN ZELAIA
“Ingurumen gatazkak tokikoak eta mugatuak ziren lehen, orain proiektu asko eta Nafarroa osokoak dira”

46 | KULTURA
Jimmy Jazzek 15 urte
 Gorka Peñagarikano eta Jone Alaitz Uriarte



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza
 Komunikazio Biziagoa
 S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
 Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
 Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
 Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene
 Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
 Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia,
 Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
 Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
 Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria
 Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
 Antza S.A.L.

Administrazioa
 Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
 Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
 Olatz Korta

Azoka
 Mikel Olabide

Idazkaritza
 Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
 Bego Zuza

Web garapena
 Asier Iturralde

Informatika
 Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X
Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikokoak
 komertzial@argia.eus
 komunitatea@argia.eus

Telefonoa
 943371545

Gipuzkoa
 Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enpreekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekodizioaren Institututoko
bazkide da ARGIA



Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara



Suntsipen inperiala

Asteazkenean, Libano ipar-ekialdeko Bekaa lautada bonba sionisten jomuga izan zen. 55 pertsona hil zituzten, tartean hainbat haur. Pertsonen buruez gain, eztrandak Unescoren Gizateriaren Ondare den Baalbeken ere erori ziren, Ekialde Hurbileko aztarnategi arkeologiko garrantzitsuenetakoa, mundu osoan hobekien kontserbatu den erromatar arkitektura inperialetakoa. "Eguzkiaren hiria" estali du suntsipenaren hautsak. Hango agintariek salatu dute leherketek eragindako bibrazioek eraikinen egitura kaltetu ahal izan dutela, eta bonben keak eta produktu kimikoek harriak degradatzen dituztela. Milaka urtetan Baalbekeko tenpluek arplatzeak, lurrikarak eta gerrak jasan dituzte. Orain haien mehatxu berria "Ekialde Hurbileko demokrazia bakar" gisa saldu digutena da. Memoria suntzitzea herri oso bat zigortzeko manera zaharra da. Erromatar inperialistek ondo baliatu zuten hori munduan barrena; orain gizateriaren aurkako krimen hori perfektionatu du inperialismo sionistak.



Getarian jartzera doazen lehen hegalabur haztegiak zer ekarriko du?

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Gipuzkoako Getariako kostatik 3,7 itsas-miliatara (6,6 kilometrorra) jartzear dira Euskal Herriko lehen itsas zabaleko arrain haztegia. 50 metroko diametroa eta 40 metroko sakonera dute bi kaiolak. Bertako itsas baldintzetara ongi egokitzen badira, 2025eko udan 50 hegalabur edo zimarro gizenduko dituzte bertan. Eusko Jaurlaritzak bultzatu du proiektua eta Itsasbalfego enpresak burutuko du (%70 Kataluniako Balfego enpresarena eta %30 Aztirena). Bizkaiko eta Gipuzkoako ontzien hegalabur kuota osoa hara bideratuko den proiektuak bi lurralde horietako kofradien oniritzia du, eta orain arte ez du eztabaida handirik sortu kalean. Azaroaren 14an Getarian mahai-ingurua antolatu du Artzape euskara elkarteak eta bertan parte hartuko duen Lorea Flores elkarrizketatu du Eli Pagolak *Egonarria* saioan.

Oraingoz ez da hegalabur edo zimarroirik egongo Getariako kostaldean jartzear diren bi kaiola handietan. Itsasoko egoerara ongi egokitzen bada, Itsasbalfegoren helburua da 2025eko udan 50 hegalabur gizentzea. Epe motzean beste lauzpabost kaiola jartzeko oniritzia azaldu du Jaurlaritzak eta guztira 7 milioi euroko kostua luke, hiruzpalau urtean 1.100 tona gizentzera iristeko, hau da, Gipuzkoa eta Bizkaiko ontzien hegalabur kuota osoa berari saltzeko.

Zer ondorio izango ditu artisau arrantzaleentzat? Zenbat lanpostu sortzen ditu eredu batek eta besteak, hau da, gizartean zer ekarpen egiten du eredu bakoitzak?

Hori ez da aldaketa izango, izan ere, 2010etik Gipuzkoa eta Bizkaiko kofradiak beren hegaluze kuota saldu egiten dute, ekonomikoki errentagarriago ateratzen zaielako arrantzatu eta hegaluzea saltzea baino. Gaur egun kuota Balfego enpresari saltzen diote eta enpresa kataluniarra nagusi da Mediterraneoan. Baina Jokin Sagarzazuk Berriako artikuluan azaldua duenez, iaz Espainiako Gobernuak legea aldatu zuen eta ontzi batek bi urtean ez badu dagokion kuota arrantzatzen, galdu egingo du eskubidea. Horregatik, formula aldatuko dute: hemengo ontziek "arrantzatuko" dute Itsasbalfegoren kaiolatik eta Balfegori salduko diote arrain hori.

Hainbat galdera zabaltzen ditu arrain haztegiak: kanaberekin arrantzatzetik

inguraketa teknikara pasatuko dira ontziak. 12 Mila elkarteak zabaldua duen aldarria da kostaldetik lehen 12 miliatan artisau arrantza soilik egin dadila, espezieak lasai ugaltu daitezzen eta itsas zabalean ari diren ontzientzat ere onura izan dadin; proiektu honek, ordea, 3,7 miliatara ezarriko ditu kaiolak, ontzi handiek arrantzatuko dituzte inguraketa tekniken bidez... zer ondorio izango ditu artisau arrantzaleentzat? Zenbat lanpostu sortzen ditu eredu batek eta besteak, hau da, gizartean zer ekarpen egiten du eredu bakoitzak?

Greenpeaceko Euskal Herriko arduradun Lorea Floresek *Egonarria* saioan azaldu duenez, enpresa hauek botika kimikoak erabiltzen dituzte kaiolak infekzioetatik babesteko eta pilatuta dauden animalien artean zabaldu ohi diren gaixotasunei aurre egiteko, antibiotiko bidez, adibidez. Substantzia kimiko horiek itsasora isuriko dira, kostaldetik oso gertu.

Nork jango ditu euskal kostaldean gizendutako hegalaburrok? Hemengo ontziek bertatik "arrantzatu" eta Balfegori salduko badizkiote, eta Balfegok orain arte bere arraiki asko Asian saltzen badi...

Testuinguruaz ere mintzatu da, Mediterraneo itsasoa berotu izanak ekarri omen du Balfegok hango haztegitan emaitza kaskarragoak jasotzea, eta Kantauri itsasoa epelduz doan heinean, etorkizunerako baldintza hobeen bila etorri ote da Euskal Herrira?

"Nora garamatza Getariako zimarro haztegiak?" galderatik abiatuta, azaroaren 14an proiektuari buruzko ikuspegia jorratzen ariko dira Getarian Izaskun Suberbiola (Mater Ontzi Museo Ekoaktiboko arduraduna), Lorea Flores (Euskal Herriko Greenpeaceko koordinatzailea), Leo Belaustegi (arrantzale ohia eta Ondarru 12 milako kidea), Leandro Azkue (Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaria) eta Tomas Otamendi (kirol arrantzalea eta Malkorbe Amarristen Elkarteko batzordeburua). ●



Balfego enpresak Mediterraneoan duen hegalabur haztegi bat.

Besarkada



UXUE APAOLAZA LARREA

Batzuetan *batbihiru* bat egiten duzu, eta esan, esan behar zen lekuan, ziur dirudizu, eta amaitzean, zotinka negar egin nahi duzu. Dena bukatu denean, ekipokoen goxotan, besarkada bat eman dizu, luzea, eusten ari balitzaizu bezala.

Agian, behin, lagun uste zenuen lankide batekin oheratu zinen, sakondu ustean, baina biharamuna izoztuta iritsi zen, eta lagun zena mehatxu da orain. Eta, nola ez, bilera batean elkartu zarete.

Agian, lagun bat egin duzu, egunero-egunero idazten zenizkieten elkarri zuen intimitatearen puskak, kontraturik sinatu gabe. Eta bat-batean isildu zen, eskubidea zuelako. Eta bilera batean ikusi duzue elkar.

Agian, lagunak zineten lehendik, baina testuingurua aldatu da, eta, dirudienez, ez zineten hainbeste, eta zure ahulgune guztiak dakizki orain. Ondoan duzu bileran.

Agian, besterik gabe, zure nagusia da.

Batzuetan *batbihiru* bat egiten duzu, eta esan, esan behar zen lekuan, ziur dirudizu, eta amaitzean, zotinka negar egin nahi duzu. Dena bukatu denean, ekipokoen goxotan, besarkada bat eman dizu, luzea, eusten ari balitzaizu bezala. Denek ikusi dute afektu keinu hunkigarri bat, zuk bakarrik ikusten duzu hesitzen zaituen konstriktor haratesia. Eskua luzatu duzu, norbaitek heldu, eta aska zaitzan. ●



MOTZEAN

“Laborantza herrikoiaz bizi eta elikatu” lelopean egin dute aurtengo Lurrama, Miarritzen, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak antolatuta. “Erakundeen eta nekazaritzako talde industrialen menpe” dagoen elikadura-ereduaren aurrean, nekazaritza eta elikadura burujabetza sustatu dute aurten ere.

Etxebizitzaren arazoari irtenbidea ematea helburu, Nafarroako 21 udalerrri tentsio handiko eremu izendatzeko prozesua abiatu du gobernauk.

Lizarrako jaietan, txosnen debekua aurka manifestatu ziren milaka lagun. Askok ‘Bajadica del Puy’ kalejiran jarraitu zuten protesta eta horietako 27 deitu ditu deklaratzera Udaltzaingoak.

Euskara eta euskal hiztunen komunitatea “larrialdi linguistikoan” dagoela adierazi du Euskalgintzaren Kontseiluak. “Neurri egokiak epe laburrean” eskatu ditu.

Juan Mari Beltran musikariak irabazi du Eusko Ikaskuntzaren 2024ko saria, musika ondare tradizionala “berreskuratuz, zaindu eta transmititzeagatik”, besteak beste.

Mugikorrak hezkuntzan



DIANA FRANCO EGUREN

Guraso elkarteak mugikorren inguruan bigarren hezkuntzarako protokoloa lantzen dabiltzala eta, protokoloaz galdetu dit Bilboko guraso batek.

Jaurlaritzaren webgunean irakurri dudanez, EAEn, 2024ko urtarrilean ikastetxeetan mugikorren erregulazioaren inguruan adierazi zena honakoa izan zen: ez da debekurik existituko Hezkuntza Saitetik. Irakasle batek, momenturen batean, bere hezkuntza jarduera aurrera eramateko mugikorren erabilera beharrezkoa ikusiko balu, berau baimentzea ondo ikusiko da. Beti ere kontuan hartu behar dira honakoak: erabilera egokia egitea, ikasleen ahalduzkoa bilatzea eta erregulatua izatea, hau da ikastetxeko Antolaketa eta Funtzionamendu Araudian jaso beharko da eta Eskola Kontseiluak onartu beharko du.

Gizarte eta hezkuntza sisteman neurri handi batean dugun digitalizazio ereduak zenbait dinamika ditu berezko: datu estraktibista den eredu batean oinarrituta dago eta horrek zenbait ikaslerengan bazterkeria eta zaugarritasuna areagotu ditzake etorkizunean. Sistema estraktibista izanik, erabiltzailearen arreta bertan izatea bilatzen du, beraz aplikazio gehienek adikzioa eta menpekotasuna sortzen dute. Eta ikastetxe eta beste gizarteratze espazio batzuetan eman daitezkeen jokabide bortitzak orain arte babestoki izan diren lekuetara luzatu ditzake, hala nola etxea.

Google gailu guztietako sistema den bitartean (Chromebook zein Android bidez), protokolo horietan honakoak sartuko nituzke. Eskolan: erabilera mugatu; hezkuntza digital kritikoa sustatu; datu estrakzioa bultzatuko ez duten aplikazioak aholkatu; pribatutasuna zaindu (aplikazioak erabili ditzakeen baimenak mugatuta, adibidez); segurtasunean indarra jarri.

Eskolatik kanpo: saiatu eskola edo kaleko harreman kutsakorren itzala ez dadila etxera luzatu, mezularitza, bideojokoetako txat, clasroomeko txat edota sare sozialen bidez. Harreman guztiek ez dute zertan txarrak izan, gure seme-alaben dinamikei arreta handia jarri beharko diegu. ●

“Parkingik ez, parkea” exijitu diote ehunka familiak Donostiako Udalarari

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Ekintza zuzena burutu dute Donostiako Marrutxipin 600 pertsonak baino gehiagok. Ategorrieta ondoan, Sorleku parkea egitea nahi duten lur-eremuaren inguruan buelta bat eman ostean, barrura sartu dira ordu erdi pasatxo iraun duen protestan. Duela hainbat urte, Donostiako Udalaren parte-hartze prozesu baten bidez, ehunka haur eta auzokideren lankidetzarekin, parkea diseinatu eta Sorleku izena eman zioten. Orain aste gutxi, baina, udalak bertan aparkaleku bat egiteko asmoa iragarri zuen. Protestaren arrakasta ikusita adierazi dute: "Espero dugu politikariek entzungo dutela gure mezua".

"Parkingik ez, parkea orain!" lelopean, trikitalariak buruan eta hurrek eginiko kartel eta marrazkiak Marrutxipiko lur-eremu grisaren inguruan jarrita, protesta egin dute, azaroaren 7an. Behin partzela hesituari bira eman ostean, hesia ireki eta barrura sartu dira 660 lagun inguru.

Harriz eta obretako materialez beterik dagoen eremua izaki, zenbait antolatzailek jolasteko eremu bat perimetratu dute, zinta batekin, haurren segurtasunerako. Soka-saltoan aritu dira pozarren, oihua errepikatu: "Par-ke-a-nahi-du-gu!".

"Guk haurrak, zuhaitzak, lasaitasuna eta bizitza nahi ditugu; ez autoak, asfaltoa, zarata eta kutsadura", adierazi dute Sorleku parkearen aldeko

guraso eta auzokideen izenean prentsari igorritako oharrean. "Protesta koloretsu eta indartsu honekin gure ahotsa altza nahi izan dugu eta argi diogu, ehunka pertsona gara parke honen alde mobilizatu eta protesta egiteko prest gaudenak".

Gogoratu dute parke horren diseinuan Zurriola ikastolako 300 ikaslek, inguruetako zahar etxeetako egoiliarrek eta auzokide ugari hartu zutela parte, eta denen artean diseinatu zutela nolako parkea nahi zuten. Proiektuarentzat Donostiako Udalak zenbait urtez diru partidak onartu izan baditu ere, azken bost urteotan geldirik egon da. Duela hilabete inguru, sorpresaz, udalak jakinarazi zuen bertan parkerik ez, baizik eta aparkaleku erraldoi bat egingo duela, hirira kanpotik iristen direnek autoa utzi ahal izateko. Albisteak inguruetako auzo elkarte, bizilagun eta gurasoak mugimenduan jarri zituen. Adibidez, bi astetan, 2.500 sinaduratik gora bildu zituzten online.

Duela pare bat aste, Donostiako Udaleko osoko bilkuran Elkarrekin alderdiak Sorleku parkearen alde aurkeztutako mozioa onartu zen. PSE-EE alderdia bakarrik geratu zen aurka. Elkarrekin, PP, EH Bildu eta EAJ parkearen alde posizionatu ziren. "Osoko plenoan gertatu zenak indar gehiago ematen digu, irabaz daitezkeen borroka dela ikusten dugulako". ●



DANI BLANCO

Haurrak jomugan Zisjordanian

 VISUALIZING PALESTINE / ARGIA

2023ko urriaren 7tik 2024ko uztailaren 31ra bitartean, Israelgo indarrek eta kolonoek 116 haur palestinar hil zituzten balaz Zisjordania okupatuan. %90 gorputz adarretan, buruan edo hainbat ataletan tirokatu zituzten, eta horrek esan nahi du Israelgo tiratzaileek hiltzera tiro egiteko politikari jarraitzen diotela.

Kasuen %8an, ezin izan da bala-zaurien lekua zehaztu, Israelgo agintariek haurren gorpuak konfiskatu zituztelako.



Amir, 13 urte

Tiro bat jaso zuen buruan, Israelen genozidioaren aurkako martxa batean parte hartzen ari zela Gazan.




Ruqaya, 4 urte

Tiro bat jaso zuen soinean, taxi baten atzeko eserlekuan, amarekin zihoala.



Mahmoud, 15 urte

Buruan, soinean eta zangoetan tiroak jaso zituen ikastetxetik etxera bizikletan zihoala.



ATEZ ATEKOA ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAN

“Borondatezko metodoak bere topea du”

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Atez atekoa oinarri, Arabako Errioxako kuadrillako Kripan eta Eltziegon herriek Araba osoko daturik onenak dituzte hondakinen gaikako bilketan eta horien birziklapenean, eta Europak ezarritako gutxienekoetara heltzen diren bakarrak dira. Laster, kuadrillako herri gehiagotara zabalduko dute sistema. Arabako Errioxako esperientziaren lorpenez zein erronkez, eta oro har hondakinen bilketaren argizalez hitz egin du ARGIAK Kuadrillako Ingurumen teknikari Aitor Senar Enekotegirekin. “Etxez etxeko bilketa deitu genion, atez atekoa hitzak duen zamagatik Gipuzkoako esperientziaren ostean”, azaldu digu, besteak beste.

2017an hasi zenuten bidea Arabako Errioxan.

Auzo konpostaje guneekin Samaniegon eta Lantziegon hasi ginen, eta ondoren inguruko beste herri batzuetan. Plan-teamendua boluntarioa zen, norberak eraman behar zuen organikoa konpostagailura. Ondo funtzionatzen zuen, baina borondatezko metodoak bere topea du, eta tope horrekin ezinezkoa da araudia betetzea. Europak ezarri dituen mugez ari naiz: 2020rako hondakinen %50 gaikak biltzea, 2025erako %55, 2030erako %60 eta 2035erako %65. Hori betetzeko erabaki zorrotzagoak hartu behar dira.

Derrigorotasun eredu batera egin zenuten aldaketa.

Kripanen ezarri genuen lehenbizi. Udalarekin auzo konpostaje gunea herri-tik aldentzea adostu genuen, jendearen kezak baitzeuden, baina derrigorrezko atez atekoa ezarrita.

Errefusaren edukiontzia giltzaz ixtea ere erabaki genuen. Azken batean, errefus edukiontzia zabalik izatea etxe ondoan zabartegi txiki bat izatearen parekoa da, kontzientziatuta ez dagoenak dena bertara botatzen jarraitzen du. Argi genuen errefusarena ixteak ahalbidetuko zigula beste dena hobeto

“2023an, Eltziegon hondakinen %64 bildu zuten bereizita %61eko birziklatze tasarekin. Kripanen hondakinen %87 jaso zuten gaika, %85eko birziklatze tasarekin”

jasotzen, ontziak, organikoa... Errefusarena ostiral eta igandetan soilik zabaldu dezake etxe bakoitzak, bere giltzarekin.

Eta zer emaitza eman zuen?

Oso ona: batetik, jasotako organikoa oso garbi zegoen; eta bestetik, kopurua gero eta handiagoa zen. Organikoa asko igo zen, eta errefusa asko jaitsi. Kripanen, errefusaren edukiontzia astean hirutan jasotzetik bitan jasotzera pasa gara. Al-dundiak datu orokorrak ematen ditu Arabako Hondakinen Behatokian, eta Kripanek %87ko bilketa bereizitua du.

Hurrengo herria Eltziegon izan zen.

Eltziegon erronka handia zen, handiagoa delako [Kripanek 200 bat biztanle ditu, mila inguru Eltziegok], baina batez ere ostalaritza asko duelako. Herri osoak sortzen dituen hondakinen %40 sortzen du ostalaritzak. Sei konpostaje gune jar-tzea erabaki genuen. Herriarrek aukera dute, atez ate jasotzen den egunetan ez badute atera, nor bere kabuz joateko konpostagailura, txartelarekin irekita. Kripanen zein Eltziegon, konpostatzen den organikoa bertako lurretan erabil-tzen da.

Eltziegoko datuak onak dira, baina ez Kripangoak beste.

Ez hainbeste. 2023an, Eltziegon hondakinen %64 bildu zuten bereizita

%61eko birziklatze tasarekin. Kripanen hondakinen %87 jaso zuten gaika, %85eko birziklatze tasarekin. Nik uste Eltziegon ostalaritzak oraindik gehi-go egin dezakeela. Horrez gain, turismo asko dagoen lekuetan zailagoa da eta udan datuak okertzen dira.

Eta orain Burgelu eta Lantziego.

Burgelun hasi dira, baina beste kuadrilla bat da, Arabako Lautada. Gurean, azaroaren azken astean hasiko gara Lantziegon. Dena dugu prest. Horiez gain, hurrengo bi urteetan hasiko dira Moreta, Yecora eta Samaniego, eta Guardian ostalaritzarentzako atez ateko bat abiatuko dute. Gustatuko litzaiguke azkar-rago joatea, poliki goaz, baina urratsak sendoak dira.

Derrigorrezkotasunean jarri duzue gako nagusia. Beti sortzen da eztabaida, horrela izan behar duen edo ez. Aipatu herrietan nola jaso zuten herriarrek?

Hasieran etxeko bilketa deitu genion, ez atez atekoa. Marketin estrategia izan zen, atez ateko hitzak duen zamagatik Gipuzkoako esperientziaren ostean. Gure erronka handiena hori zen, Gipuzkoan gertatutakoaren ostean horri nola egin aurre.

Jendeari ikusarazi behar diozu dena oso ondo azalduz, xehe-xehe. Pertsona bakoitzari bere kuboia eman eta hitzaldi batzuk antolatzen ditugu. Baina horrez gain, azalpen pertsonalizatuak ematen ditugu. Adibidez Eltziegon kale bakoitzak zuen egun jakin bat kuboia jaso eta bertan norbere zalantzak edo kezak botatzeko. Lehen egunean zenbait kaltetan egin genuen eta ni ahotsik gabe geratu nintzen, literalki. Galdera tipikoak: "Jogurtaren tapa ze edukiontzira doa?"; "zergatik itxi behar dira edukiontzia?"; "zergatik ez da egiten beste herrietan?".

Erresistentzia handiak egon ziren?

Egon ziren. Egia da bizpahiru irteten di-

rela protestaka kuboak banatzean, igual 100etik hiru dira, berez ez da ezer, baina zarata handia ateratzen dute. Badago gizartearen zati bat negazionista dena, horrekin ezer gutxi egin dezakegu, baina erdibidean daudenak, oraindik zaborra bereizten ez dutenak, horiek errazak dira zuzentzen eta hor dago gakoa, populazio horretan.

Argi dago gizartea ez dagoela oraindik prest jauzi ekosozial hori emateko. Aldundiaren datuek hori diote: 2018an ontzi kopuru bikoitza jaso zen errefusaren edukiontzietan, ontzietan baino. Hobetzen goaz, iaz kopurua berdindu egin zen. Baina datu izugarria da, hoguei urte daramatzagu edukiontzi horiarekin kalean! Ez duenak banaketa hori egiten ez da ez dakielako. Orduan, tamalez, errepideetara radarrak iritsi zirenean bezala, argi genuen hemen ere zorrozta-sun puntu bat ezarri behar zela.

Behartuta edo ez, eguneroko ohiturak aldatu dituzte Kripanen eta Eltziegion. Jendearen baloreetan edo jarreretan aldaketarik sumatu duzue?

Aldaketa sozial hori ez dugu antzeman. Hasieran jendeak kezka hartzen du, bere ohituretan aldaketa bat ekarriko diolako, baina gero aldaketa dator eta oso eroso egiten dute. Aipatu negazionistak, egin nahi ez dutenak, joango dira ondoko herrira, edo Logroñora, edo bilatuko dute atzeko ate bat gaizki egiteko.

Eltziegoko datuak uda partean okertzen direla esan duzu, urtea kanpoan eta uda herrian ematen duten eltziegotarren eta turismoaren ondorioz da?

Bai, hor zailtzen da kontua, baina berdin egin dezakete, konpostaje gunea zabalik dago. Uda garaian erlaxatu egiten gara.

Hor gako garrantzitsu bat dugu orduan oro har, Euskal Herrian udan turistez betetzen diren herriak asko dira.

Erronka bat dago hor, bai. Jende bati konpostaje gune batera hurbiltzeak atzeraka ematen dio. Baina aukera badute. Hala ere, nik uste pixkana, udalerrri gehiago batu ahala, hori ere hobetzen joango garela.

Solasaldian atzera eginez, harritu naiz esan duzunean hainbeste urteren ostean Arabako Errioxan ez duzuela atez ateko hitza erabiltzen Gipuzkoako esperientziaren ondorioz



zama negatiboa duelako.

Bai, bai, hamar bat urte pasa dira baina oraindik ere zama hori dugu. Ez dakit konparaziorako egokia den, baina Madrilen oraindik ere batzuk ETA erabiltzen dute beren kanpainetarako, ba hemen beste batzuk Gipuzkoako atez atekoa berenentzako.

Zuk zer balorazio egiten duzu Gipuzkoako hondakinen gatazkaz?

Uste dut ausartak izan zirela, eztabaidaezina da sistemarik onena dela emaitzetan, baina azkarregi joan zirela. Lehen esan dudan moduan gizartea ez dago jauzi ekosoziala emateko prest, eta zerotik ehunera egiten saiatu ziren. Horrek ahalbidetu zuen batzuek politikoki erabiltzea beren intereserako, nola ez. Batzuek garesti ordaindu zuten, politikoki beren buruarekin ere, baina sentsibilizazio kanpaina bikaina izan zen eta herritarrak sentsibilizatuta daude. Gaur da eguna herri asko daudena atez atekoarekin, Oñati, Itsasondo, Usurbil, Hernani eta beste.

Ezin duguna egin da kalean edukiontzi batzuk jartzearekin dena konpondu dagoela pentsatu. Erraztasunak eman behar zaizkio jendeari, baina neurri batzuk ere ezarri behar dira. Jendeak pentsatzen du bere zaborrak kontrolatuta ditugula, "ikusiko dute zer ateratzen du dan etxetik", eta horregatik irteten da dena garbi-garbi-garbi, pena ematen dit horrela hitz egiteak baina horrela da.

Arabako Errioxan herri txikiez eta herritarren etxebizitzaz ari gara, zaborren produkzioaren portzentaje

osoan kopuru hutsala. Nola eraman zuen esperientzia hiri handietara?

Hirietan erronka da populazio gehiago eta pilatuagoa dagoela. Adibidez, etxebizitza blokeetan arazo logistikoa dago, ez dago espazio komunik kuboak uzteko. Baina egin daiteke. Italiako Milanen atez atekoa egiten dute, espazio komunak dituzte zaborra uzteko, atarrietan edo kalean hesitutako txoko batean. Kataluniako Vic herriak ere atez atekoa du, eta 40.000 biztanle ditu. Kubo horiek guztiak kalera ateratzea erronka handia da, baina egin egin daiteke, gauza da joan behar dugula pixkana. Pixkanaka ohituko dira toki batzuetan eskegitzeko lekuak ikustera, edo, Nafarroako zenbait herritan bezala, baita kamerak ere. Autoaren azeleragailua sakatzeari utzi genion pentsatzean agian kamera bat egon zitekeela, hau antzeko zerbait da.

Hondakinekin ez al da tranpa egiten hainbat botere guneetatik, fokua eta erantzukizun ia guztia herritar arrunten gainean jarrita?

Egia da industriak pisu handia duela, herritarrok sortzen duguna baino gehiago. Egia da ere administrazioek, gurean Jaurilaritzak, gehiago egin dezaketela. Kontrol gehiago, ikusten dugulako fluxu industrial askok udalen edukiontzietan amaitzen dutela. Horretan zalantzarik ez. Baina guk ere herritar gisa asko dugu egiteko, eta asko dugu industriari eskatzeko, gure kontsumo ereduagatik, eta abar. Betikoa, "zer da nik egin dezakedana arazoa hain handia denean?". Hondar ale bakoitzak egiten du bere ekarpena, eta ale askok ekarpen handia. ●

VALENTZIAKOTIK IKASI BEHAR DUGUNA: **EMAN ARNASA LURRARI**

Mediterraneoan tanta hotz batek eragindako triskantzak erakutsi digu gizakiak noraino sartu dezakeen hanka. Klima larrialdia sortzeaz gain, bere kalte humanoak eta ekonomikoak anplifikatu ditugu. Copernicusen datuen arabera, 400 kilometro koadrotik gora lur geruza artifizializatzen da urtero Europan, kontrolik gabeko hirigintzaren erruz. Ondorioz, gune urbanoetan goitik behera datorren ur erauntsiaren indarra biderkatu egiten da, hondamendi bihurtzeraino, Valentzian ikusi dugun bezala.

 **URKO APAOLAZA AVILA**  **UNAI BEROIZ**

Goi geruzako depresio hotz batek –gaztelaniazko sigletan DANA bezala ezagutzen duguna– Andaluzia, Murtzia, Gaztela-Mantxa eta, batez ere, Herrialde Katalanetako Valentzia astindu zituen urriaren 29an, ehunka hildako eta desagertu eraginda. Ohituta gauzkate halako katastrofeak telebistan espektakulua bailiran ikusten, Hegoalde Globaleko herrialde txiroetan gertatzen direnean. Baina oraingoan pantailetakoz zooma gertuago sentitu dugu, nahiz eta antzekoak gertatu izan diren ez askoz urrutiago. Esaterako, Libian, pasa den urtean *Daniel* ekaitzak gutxienez 11.000 hildako utzi zituen, bi urtegitako presak hautsi ondoren. Zein akordatzen da?

Ekaitz batek astindu du Valentzia, eta astindu hango herritarrak bezala Espainiako Estatuko politika. Larrialdia kudeatzeko espainiar agintarien eta patronalaren jokabide patetikoak –ez esateagatik kriminalak– bereganatu du arreta mediatikoa, eta garrantzitsuak diren beste gai batzuk alboratu dira eztabaidatik, tartean klima aldaketa eta hori bera sortzen duten faktore androgenoak.

ZER DIO URAREN KULTURA BERRIA FUNDAZIOAK?

Uraren zikloa ikertzen ibilbide luzea egina duen Zaragozako Uraren Kultura Berria fundazioak, Valentziako hondamendia areagotu duten arrazoietakoa ba-

tzuk zerrendatu ditu: uholde-arriskuko eremuen okupazioa; nekazaritza espazio gero eta intentsiboagoak; drainatze naturala eragozten duten garraio-azpiegiturak; uholdeen kontrako alferrikako obrak, dikeak eta ur bideratzeak...

Faktore nagusien artean, lurraren “inpermeabilizazio geldiezina” ere badago: dela zabalkunde urbanistikoenagatik, dela bestelako obrenagatik, ura ez da luraren infiltratzen eta tsunami baten gisan irristatzen da hormigo biluzitik. “Azpiegitura hauek uraren abiadura eta bere suntsipen ahalmena handitzen dute arroan behera”, dio fundazioak *¿Por qué están aumentando los daños por inundaciones?* (Zergatik ari dira handitzen uholdeen kalteak?) txos-





Rambla del Poyo, Paiporta.

tenean. Fenomeno horren adibide dramatikoa litzateke Valentziako l'Horta de Sud deituriko hegoaldeko lur emankorrean gertaturikoa.

Paiporta, Catarroja, Aldaia, Alfafar... Hondamendiaren "zero" gunean ur erauntsiak 75.000 etxebizitza kaltetu dituela kalkulatu du Valentziako Unibertsitateak, baita poligono industrial ugari ere. Denera, urbanizaturiko 3.800 hektarea. "Giza galerak eta kalte ekonomikoak anplifikatzen dituen arrazoi nagusia da ibai eta erreketako espazioetan eraiki dela", dio ahobizarririk gabe modelizazio hidrológicoan aditua den José María Bodoquek *The Conversation* hedabidean.

Begiratu ingurura, eta ikusiko dituzu hirien tamainako auzo erraldoi berriak

nonahi: erriberetan, mendi muinoetan... Ez aipatzearen logistikarekin edo energia berriztagarriekin zerikusia duten beste hamaika makro-azpiegitura polemiko.

ORBAN GORRIA MAPAN

Europako Ingurumen Agentziak dio 2006tik 2015era urtero, batez beste, 429 kilometro koadro lur geruza artifizializatu zela Europan. Ideia bat egitearren, Trebiñuko konderriak duen azaleraren ia bikoitza da hori. Frantziako eta Espainiako Estatuak artifizializatu zuten lur gehien urte horietan: 572 eta 416 kilometro koadro, hurrenez hurren. Europar erakundeek kontzeptu bat dabilte fenomeno hori deskribatzeko: lurzorua zigilatzea.

Copernicus satelitearen mapetan xehetasun osoz ikus daiteke noraino "zigilatu" dugun lurra. Hamar metrotik behin puntu gorri bat. Valentziako periferia osoa dago orban gorritz estalita, baita Euskal Herriko eremu zabalak ere: Donostiatik Goierriera, Ibaizabaldik Durangaldera, Gasteiz eta Iruñeko zonalde periurbanoak, eta batez ere Baiona eta Biarritz arteko bizitegi zabalak.

Hormigoizko egitura prefabrikatuak, basaltozko zolak, asfaltozko errepi-deak... material iragazgaitz ugari erabili eta euri-urak etengabe kanalizatzen dira. Baina horrekin lortzen dena da erauntsien indarra biderkatzea, jendeak sare sozialetan ikaratuta biral bihurtu dituen Valentziako bideo horietan age-




Autoak Paiportan, Rajoleria adreilu musearen ondoan.

ri den bezala: kaleak tobogan hilgarri bihurtuta, urak autoak eta etxeak aurretik eramaten.

“EGOERA OSO LARRIA UTIELEN...”

Urriaren 29a, arratsaldeko 15:20: “Egoera oso larria Utielen (...). Uholdeak sortuko dituzten euri-jasak (...). Ez atera etxetik guztiz beharrezkoa ez bada (...). Mapa honetako balioak zaharkituta daude, gainditu egin dira (...) Euriak Jucar ibaiaren bide erdian bota du; ur hori guztia jaitsi egingo da eta herri askori eragingo die!”. Horrela jo zuen alarma Victoria Rosell meteorologoa À punt Valenciako telebista publikoko albistegietako tartean.

Paiportan, telebistan eguraldia entzutean herritar askok harrিতuta begiratu zuen leihotik, ordu horretan ez baitzuen euririk ere ari. Gorago, baina, 500 litro bota zuen. Agintariek ez zien abisatu “infernua zetorrela herrira”, Vilaweben irakurri dugun bezala. Hori da ura kontrolatu nahi izatearen beste ondorioetako bat, segurtasun sentsazio faltua emateaz gainera, albo-kalteak ondoko herriak jasaten dituela.



Valentzian artifizializaturiko eremuak.

Antonio Aretxabala geologo ezagunak Onda Vasca irratiko podcast batean gogorarazi du antzeko zerbait gertatu dela Iruñean: “Ikusten ari gara, Argan, uhaldiak saihesteko historikoki egingako obrek arazo larriagoak ekarri ditzutela azkenean”. 2021eko abenduan

Iruñeko Arrotxapea auzoa ez ezik, Burlata eta beste hainbat herri urpean utzi zituen uholdeaz ari da.

Valentziako Turia ibaiaren kasuan, oraindik aztertzeke dago 1957ko *Gran Ruidà* eta geroko obrek nola funtzionatu duten. Baliteke Francoren erregimenak eraikitako ubide berriak hiriaren erdigunea “salbatu” izana, baina autobidez inguratuta dauden hegoaldeko herri eta auzo langileak sakrifkatu dira ordainetan.

AUTOAREN MENPE DAUDEN HERRIAK

1980ko hamarkadan Valentziako aldaketa handia bizi izan zuen populazio eta mugikortasunari dagokionez: “Garraio pribatua sustatu zen, garraio publikoa murriztu, eta nekazal eremuen gainbehera hasi zen”. Josep Boira geografoaren hitzak dira, Valentziako Unibertsitatean irakaslea eta Mediterraneoko Korridore proiektuaren sustatzaile nagusietakoa, hortaz eskuinak “erradikala” deitua izateko batere susmagarria ez dena.

Agenda Pública webgunean idatzirik artikuluaren garbi hitz egin du Boi-



ELKARTASUNA

Denboraleak kalteturiko Valentzia hegoaldeko herrietara jende andana joan da lohia garbitzera. Herrialde Katalanetako sare komunitarioak ere aktibatu dira. Alfafarren, esaterako, Alcosa Parkea izeneko auzo txiroan, bazterkeria sozialaren kontra urte luzez borrokan aritu den Koordinadora de Colectivos del Parke proiektuko kideak buru-belarri aritu dira garbiketean. Brigada solidarioetan antolatu dira horretarako: "Ahaztuenak gara, badakigu ez dugula laguntzarik jasoko, eta horrek eramaten gaitu batzera", azaldu diote *La Directa*-ko kazetari Irene Molinari.

rak: "Noiz arte baimenduko dugu galgarik gabeko garapen jasangaitz hau, hirigintza eta lurzoru artifiziala areagotzen duena?". Bere esanetan azken urteetako garapen ereduak sustaturiko mugikortasunak "preso" dauka herritarra, lana eta zerbitzuak gune zehatzetan kontzentratzen dituelako.

Horrela uler liteke hainbeste auto kaleetan? Hainbeste jende autoetan? Lanetik etxera, etxetik autora... Agian hori ere bada beste irakasgai bat: egungo sistema ekonomikoak apenas uzten diola herritarrari denborarik eta espaziorik erreakzionatzeko.

"Arratsaldeko 20:00ak ziren, ura merkatalgunera sartzen ari zen eta oraindik ez ziguten etxera joateko esan ere egin", hala kontatu dio *La Directa* hedabide katalanari Zarako langile batek. Inditekek, Mercadonak, Carrefourrek, Ikeak eta antzeko beste enpresek, beste behin negozioa lehenetsi dutela salatu dute sindikatuek.

Horrela uler liteke hainbeste auto kaleetan? Hainbeste jende autoetan? Lanetik etxera, etxetik autora... Egungo sistema ekonomikoak apenas uzten dio herritarrari denborarik eta espaziorik erreakzionatzeko

IBILGUAK NATURARA ITZULTZEA

Zor ekologikoak sorturiko polikrisian sistema errotik aldatzea da irtenbide bakarra, 1.500 zientzialarik *Bioscience* aldizkarian argitaraturiko azken txostenean iragartzen duten kolapso sozialera iritsi nahi ez badugu. Baina horrez gain, beste neurri zehatz batzuk hartu dai-

tezke, Valentziakoa bezalako uholdeen kalteak murrizteko.

Uraren Kultura Berriaren fundazioak eman dizkigu oraingoan ere pista batzuk. Esaterako, ibaiei euren ibilgua itzularazi eta erriberak leheneratzea. Madrilgo Manzanares ibaian eta Kalifornian Los Angeles ibaian, esaterako, egin dira halako esperimentuak. Nafarroako Gobernuak badu plan bat Argaren ibilgua basoberritzeko eta berriki lurrak desjabetzeko prozesua hasi du Mediterraneo DANArekin gertaturikoa ikusita.

Nekazaritza guneean ura erretenitzeko neurriak ere proposatzen ditu Uraren Kultura Berriak: iraganean hain ohikoak genituen baratza eta soroen arteko hesi begetalak jartzea, drainatze naturalen sarea berreskuratzea... Eta hirietan ere esku-hartze ugari egin daitezkeela dio: belardiak handitu, bide-zoru iragazkorak jarri, edo hezegune artifizialak eta euri-lorategiak sortu, besteak beste. Finean, lurri arnasa eman. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Juana Dolores

AGITAZIOA ETA PROPAGANDA



NEURE BURUARI GALDETZEN DIOT ZER EGITEN GENUEN EMAKUME LANGILEOK EMAKUME BURGESEN ONDOAN MANIFESTAZIO BEREAN



Goiburu baten bidez ezagutu nuen Juana Dolores; zera zioen: iraultzaileagoa zela ondo idaztea, katalanez idaztea baino. Flipatu egin nuela aitortu diot, eta berak esan dit bizitzako lehen elkarrizketa zuela hura. Lau urte geroago, berritasunaren olatua surfeatu du, eta Bartzelonan bildu gara berarekin, bere lan artistikoaz eta pentsaera politikoaz aritzeko: estu lotuak biak ere.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  AMANDA GÓMEZ / ARGIA CC BY-SA

2020an argitaratu zenuen *Bijuteria*, eta lau urte geroago iritsi da euskarazko itzulpena, *Girgileria*, Katakraken eskutik. Zer moduzkoa izan da poemetara itzultzea?

Gustatu zait *Girgileria*-ra itzultzea eta, neurri batean, ixtea –testuinguratze-testu bat eta zortzi poema gehitu ditut, eta zaharretako batzuk findu—, zeren, nahiz eta bere garaian liburua asko kritikatu zen, hitzaren zentzurik onenean, nire lehenengo hitz-hartze eta adierazpen politikoaren ondorioz mediatizazio bat gertatu zen, eta la-

nari buruzko iritzi guztiak baldintzatu zituen horrek. Aldi berean, elite politiko eta kulturalak exotizatu egin ninduten; harrituta geratu ziren langile-klaseko emakume katalan batek, izen-abizen espainiarrak izanik, irabazi zuelako poesia katalaneko sari bat [Amadeu Oller saria].

Beraz, xumeki, nire lehen poema-liburura itzultzeaz gozaten ari naiz, polemikaren eta nire lanaren arteko distantzia handiagoarekin orain. *Girgileria*-z harro sentitzen naiz. Uste dut lehen poema-liburu on bat dela.

Badu munduaren aurrean agertzen den poetaren aurkezpenetik.

Oso argi neukan nire estreinako liburua zela oro har, eta nire lehenengo poema-liburua zehazki; ez nuen presaka atera nahi. Horretarako, denbora eta dirua behar nintuen. 28 urterekin argitaratu nuen; gaur egun, batzuentzat berandu samar da hori. Liburua den hori izan zedin nahi nuen: maitasun-poemen lehen liburu bat, langile-klaseko emakume batek idatzia eta argitaratua, baina baita burutua ere. Uste dut hori islatzen dela bertso batzuetan edo poema-multzoaren aura orokorrean.



Juana Dolores

EL PRAT DE LLOBREGAT,
HERRIALDE KATALANAK, 1992



Poeta eta antzerkigilea. *Girgileria* [itzulpena: Maider Ramirez Martin] eta *I si una nació desfilant per una catifa vermella –réquiem català–* poema-liburuak, *Juana Dolores, massa diva per a un moviment assembleari* eta *Hit me if I'm pretty* edo *printzesa moderna* antzezlanak eta *Limpieza* eta *Miss Universo* ikus-entzunezko piezak kaleratu ditu.

Nola deskribatuko zenuke zer lekutik idatzi zenituen poemak?

Maitasun-poemen bilduma bat izan nahi nuen, neurea. Eta, nigan, maitasuna honako hauek zeharkatzen dute: neure sentikortasun edo sentikorke-ria femeninoak, saihestezina eta historikoki baldintzatua, batzuetan irri-garria, baina, zergatik ez, baita poema hauetan konplexurik gabe baieztatua eta erakutsia ere. Maitasun-poemak idaztean, ezin izan nuen alde batera utzi klase-gizarte honetan emakume gisa daukadan kondizioa; gaur egungo matxismoak ezaugarritzen du. Baina horrek ez du esan nahi poema-liburua agitatiboa eta propagandistikoa denik, ezta iraultzailea ere diskurtsoan edo edukian. Une horretan ez zen nire asmoa: poetizatu nahi nuen, estetizatu, "apaindu". Horretarako, estilo bat behar nuen, kontu teknikoak eta zaila. Eta zeregin horretan tematu nintzen *Girgileria* idatzi bitartean.

Baina gauza bat esan nahi nuke, Euskal Herriko hedabide baterako ari garela kontuan hartuta. Liburua idazten bost urte pasa eta gero, termino politikoetan ilusio laburrak eta desengainu eternalak bizi izan ostean –azkenengo poema *Otoitza* deitzen da, eta ez da kasualitatea: jainkoari erregutzen diot erruki dadin gizonen porrotaz–, Vladimir Maiakovskiren –"Iraultza errusiarraren poeta handi" gisa ezagutzen dena– poema-zati bat sartu nuen. Hala dio: "Ezin da jadanik ezer barkatu. / Kauterizatu ditut xamurtasuna / hazitzen zuten arimak. / Eta gogorragoa da / milaka mila Bastilla hartzea baino! / Eta bere etorre-ra gaztigatzen duelarik / matxinaden zalapartan, / salbatzailearen aitzinera joanen zarete, / eta zuentzat, nik / arima erauziko dut / oinkatu egingen dut handiago egiteko, / eta, odoletan, banderatzat emanen dizuet". Eta horixe gertatu zen. Iraultza artean ere posible zela iragarri zen. Eta horrek markatu egin nau, erradikalizatu. Eta arima erauzi dut, eta zabaldu egin dut handiagoko izateko, eta odoletan daramat, bandera baten moduan. Eta hala izango da amaierara arte.

Feminitatearen analisisa presente dago, poema hauetan ez ezik, baita zure azken pieza eszenikoan ere: *Hit me if I'm pretty* edo *printzesa moderna* –Bilboko La Fundicionen aurkeztuko duzu otsailaren 15-

16an–.

Halako batean ohartu nintzen ezen, lanerako, beti aukeratzen nituela kontzeptu, irudi, elementu, arketipo, estereotipo, etab., femeninoak.

Missak, dibak, printzesak...

Bai, eta hori organikoa izan da. Baina, gero, lanean ohartu nintzen ez zitzaidala feminitatea interesatzen esentzia gisa, ezpada zera femeninoa ezaugarri eta bereizgarrien multzo gisa, ez soilik emakumeei lotuta. Gustatzen zait zera femeninoa ulertzea bokazio, nolabait esan, historiko-artistiko gisa; bada zerbait merezi duena aztertzea izatea, gero zalantzan jartzeko, ukatzeko, eta gainditzeko.

Poema batean diozu: "Erakarri eta seduzitzen duen edozerk / proletarioki eraikitzen dit balio femeninoa / izango balitz bezala tradizio berri zahar bat: / kutxazainena, Claire'seko langileena, estetizistena". Aldarrikapen gisa hartu dut.

Ez dakit aldarrikapena den. Omenaldi bat da, oso feminizatuta dauden lanbide batzuen harira. Edo, beharbada, aipamen bat baino ez: omenaldiak, maiz, etorkorrak eta paternalistak izaten dira eta. Bertso horien harira, uste dut orobat biltzen dituztela eragin estetiko batzuk, musika urbanoak Espainiako estatuan izandako ezta emakumeei ekarritakoak. Horregatik aipatzen ditut La Zowi eta Rosalía liburuan.

Baina *trapa* zahartu egin da eta ni ere bai, eta gutxi geratzen da garai horretatik. Autokritika eginez, ni neu liluratu ninduen eszena berri horrek –ez zen soilik musikala; artistikoa zen, maila guztietan–, eta ospatzekoa iruditu zitzaidan eszena horrek zekarren emakume-errepresentazioa, ni ere identifikatzeko modukoa: emakume bat bere sexualitatearen eta sentsualitatearen jabe, horiek erakusteko aske. Ez zen hala izan sekula. Zeren hipersexualizazioak, baita norberak kontzienteki eginda ere, niri ez dit ezertarako balio izan, egia esan. Beharbada gauza batzuetan eta une batzuetan bai, baina gaur esan dezaket erabat anekdotikoa dela, ez dela nahikoa inondik ere. Gainera, iruditzen zait pobrezia fetitxizatu eta exotizatu zela. Eta, kasu zehatz honetan, pobrezia feminizatua. Gorabide sozialarekiko gurtza ahaztu



gabe. Dena den, jakinik-eta iruditegi eta unibertso horiek ez direla iraultzaileak, sentitzen dut neure klaseaz mintzo direla halere, haren kontraesanaz eta zatiketaz. Zoritxarrez, proletariotza oraindik ez dago osatuta subjektu iraultzaile gisa, nahiz eta hori den eta izan behar duen.

Zer harreman du honek guztiak feminismoarekin?

2018ko feminismoa, masa-manifestazioak eta -elkarretaratzeak ekarri zituen, kaleak betetzen zituena, jada ez da existitzen. Gutxi iraun zuen. Zergatik? Horra galdera. Nik ez dakit ezer; aktore bat baino ez naiz, poemak eta antzezlanak idazten dituena. Baina feminismoaren ezaugarri berezkoa da interklasismoa: klaseen arteko adiskidantza sustatzen du. Eta xehetasun horrek, zeina maiz ahazten dugun, ahalbidetzen du instituzioek eta enpresek feminismoa asimilatzea. Neure buruari galdetzen diot oraindik ere ea zer egiten genuen emakume langileok emakume burgesen alboan manifestazio berean. Garai hartan, “klase-feminismoaz” asko irakurtzen zuen friki bat nintzen; nahiz eta ez nuen guztiz ulertzen zer zen, eta oraindik ere ez. Ulertzen dut, ordea, kapitalismoa dela gaixotasuna, eta matxismoa, berriz, bere sintoma ugarie-

tako bat. Kapitalismoak berak sortzen eta betiketzen du genero-menderakuntza orokorrean eta indarkeria matxista zehazki gaur egun ezagutzen ditugun formetan eta moduetan. Eta estatu burgesak gauza bakarra eskaintzen digu emakume langileoi, eskas gainera: prebentzio-mekanismoak eta aringarriak, zeintzuek ez duten batere zerikusirik arazoa errotik desagerraraztearekin, matxismoa deuseztatzearekin.

Gogoko dut esatea zakileraino nagoela feminismoaz, egia esan.

Duela gutxi, elkarrizketa batean, zure figuraren harira egin den karikaturizazioa kritikatzan zenuen.

Beste jaun eszentriko eta kontestatario bat izan banintz, nire pertsonaren mediatizazioa ez zen berbera izango. Kontua da ni ez naizela jaun bat, ez eszentrikoa, ezta kontestatarioa ere; komunista naiz. Eta prest nago horren ondorioak onartzeko bukaerara arte. Antolakunde politikorik ez nuenez, egia esan pentsatu nuen politika egin nezakeela nire adierazpen publikoen bidez: telebistara

“
**Iraultza artean
ere posible zela
iragarri zen. Eta horrek
markatu egin nau,
erradikalizatu. Eta
arima erauzi dut**”

joan, irratira joan, elkarrizketak eman, etab. Baina ez da egia. Gurutze-bide bat izan zen. Politikoki hitz egiteak, modu indibidualen, burgesiaren hedabideetan, ez du ezertarako balio; antzua da. Eta suizidio bat. Zu karikaturizatzeo baino ez du balio, eta horri etekina atera diezaioten. Baldin eta artistek “klase” politika egin nahi badute benetan –eta hala diote gehienek– beren egoak, asmoak, ametsak etab. baino handiagoa eta oho-



**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behea / Donostia
943 005 680 aholku.eus

ragarriagoa den zerbaiten mende jarri behar dute. Eta ez dago gauza handiagorik eta ohoragarriagorik proletalgoaren independentzia politikoaren alde borroka egiten duen antolakunde iraultzaile bat baino.

Kultura katalanari kome- ni zaio eta interesatzen zaio *enfant terrible*-ak edukitzea noizbehinka. Baina ni ez naiz eta ez naiz izango “ezkerreko artisten” kuotaren parte. Inolaz ere ez. Ez dut izan nahi idazle bat burgesiaren kontra idazten duena baina ez daukana arazorik burgesiarekin; ez dut izan nahi idazle bat bere klasearentzat idazten duena baina ez dena bere klasearen alde borrokatzen. Hipokrita eta faltsua iruditzen zait, nazka ematen dit. Hala ere, ez dut hori epaitzen; batzuetan moralistegia naiz. Baina niri, egia esan, jarrera horrek nazka ematen dit, eta ez nuke lasai lo egingo gauez.

Eta idazle gisa nola kokatzen zara egoera horren aurrean?

Nik ez dut nahi, ezta ere, 50 urte bete



nak egiteko dudan modurik onena neure lana da.

Adibidez?

Oraintxe bertan edertasunaren potentzialtasun eta gaitasun iraultzaileetan –agitatzaileak eta propagandistikoak– zentratuta nago, bai errealismo sozialistari bai fikzio sozialistari dagokionez. Komunistok ondotoxo jakin behar dugu irudimenaren borroka geuk gauzatu behar dugula. Ezer desiratu aurretik, irudikatu egin behar da. Eta oraintxe bertan gure lehentasuna baldin bada iraultza ez soilik posibletzat jotzea ezpada desiragarritzat ere, lehenik eta behin irudikatu egin behar dugu. Eta horretarako izan daitezke baliagarriak artea eta literatura, bai errealismoan eta fikzioan, soilik baliagarriak izan ordez jeinuak eta pertsonalismoak sortzeko –kontu irrigarri samarra nire ustez–.

Girgileria ez da argiki komunista. Baina marxismoarekin elkarriketan dago. Eta marxismoarekin hitz egiteak tradizio gisa, kontakizun handi gisa, marxismoaren garrantzia, legitimazioa eta gaurkotasuna erakutsi zituen.

Girgileria ez da argiki komunista. Baina marxismoarekin elkarriketan dago. Eta marxismoarekin hitz egiteak tradizio gisa, kontakizun handi gisa, marxismoaren garrantzia, legitimazioa eta gaurkotasuna erakutsi zituen.

Datorren astean Euskal Herrira zatorz *Girgileria* aurkeztera. Hilaren 19tik 22ra Iruñean, Gasteizen, Bilbon eta Donostian izango zara.

Lehen argitalpenetik a bost urte joan diren honetan, *Girgileria*-ri buruz hitz egiten ari naiz berriro. Pozik nago. Batez ere jakin-min handia dut ea nola irakurri den liburua Euskal Herrian, hango jendearekin hitz egin nahi dut lanari buruz eta ez dezatela oso kontuan izan nire alderdi maitabera eta esteta.

Bukatzeko, *Familia abolitu. Zaintzen eta askapenaren aldeko manifestu bat* liburuaren zati bat aipatu nahi dut; Sophie Lewis teorialari marxistarena da: “Bere autobiografian, [Alexandra Kollontai] damutzen da bere bizi femeninoaren zatirik behinena ez diolako eskaini lan [iraultzaileari], ezpada maitasun madarikatu zentzugabeari. Kollontairen ikuspegian, ekoizpen-lanak, eta ez zaintza-lanak, izan behar zuen emakumeen bizitzaren misioa. Kollontairentzat, zaintza sozializatzea *sine qua non* baldintza da sozialismoarentzat, zeren, berarentzat, lanak, eta ez zaintzak, egiten dute historia”. ●

eta “antisistema” izan, baldin eta horrek ezer esan nahi badu gaur egun. Ez da serioa. “Antisistema” etiketa abstraktua da, eta oso karikaturagarria. Lehen urteetan karikaturizatu egin ninduten, eta nik sustatu egin nuen beharbada. Baina norbera hazi egiten da, ikasi egiten du. Erradikalizatu egiten da, lehen esan dizudan moduan. Nik agitazioa eta propaganda sustatu nahi ditut, uste baitut horiek direla artista komunista ororen funtzio nagusiak; erabilgarriak eta politak. Eta, egia esan, uste dut horixe izan naizela betidanik: agitatzaile eta propagandista ona. Niri interesatzen zaidan bakarra, eta beti interesatu zaidana, politika da; baina ez zaidalako iruditzen artistoi, kasu honetan, beste ezer interesatu beharko litzaigukeenik. Kapitalismoa da artearen eta literaturaren etsairik okerreana.

Zein da politikaren eta estetikaren arteko lotura zure lan literario eta artistikoan?

Nire lan artistikoa politikaren eta estetikaren arteko dialektikan oinarritzen da oso-osorik; ideologiaren eta edertasunaren arteko dialektikan. Horrek zerikusia du, nabarmen, ni neu naizenarekin. Bizitza osoan sentitu izan naiz, tarteka, politikaren eta estetikaren artean zatitua. Politikak –gaizki ulertuta– eraman ninduen langile-klaseak edertasunerako duen eskubideaz pentsatzeari uztera; estetikak, berriz –gaizki ulertua hori ere– nolabaiteko burgeste batera eraman ninduen. Baina ikuspegi sozialista edo komunista batetik politikaz eta estetikaz teorizatzea ez da lantegi indibiduala, ezta ere artistek edo intelektualek soilik garatu beharrekoa. Momentuz, xumeki, intuizio eta nozio batzuk partekatu ditzaket; baina oraingoz ekarpe-

Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED AS 5100

LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI
943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus
www.talleresmitxelena.eus



Gainezka egiteko falta zen tanta

Urriaren 25a. Valentziako Meteorologia Elkarteak iragarri duenez, hurrengo astean goi geruzetako tanta hotz batek euri-erauntsiak eragin ditzake Valentzian. Egunez egun, aurreikuspenak berresten dira, eta urriaren 29an, goizeko lehen orduan, Espainiako Estatuko Meteorologia Agentziak alerta gorria ezartzen du. Ordu batzuk geroago, alerta horri gehitzen zaio Magre eta Poio ibaiaren emariaren hazkunde arriskuaren ohartarazpena. Mundu paralelo batean, Valentziako Generalitateko presidente Carlos Mazónnek (PP) prentsaurreko bat egiten du, eta ziurtatzen du arratsaldeko seiak aldera euria baretuko dela eta arriskua pasatuko dela. Hain zuzen ere, ordu hartan hasi zen tragedia.

Arratsaldeko seietan Magre erreka ura Algemesí-ko euste-horma gainditzen ari zen eta Ribera osoan zabalitzen. Sei eta erdietan Poio erreka Torrent-eko kaleak hartu zituen, eta jarrarian hegoaldeko l'Hortako dozenaka hirigune handi urperatu zituen. Ordu hartan mundu guztia ohiko bizimodua egiten ari zen. Haurrak eskolaz kanpoko jardueretan, langileak industria-poligoan, dendak irekita, merkataritzaguneak jendez lepo. Ahoz aho zabaldu zenean ibai gaineko zubiak txikitzen ari zirela ur-horma bat, enborrak eta mota guztietako hondakinak, ehunka edo milaka pertsonak parkingetan zein kalean aparkatutako ibilgailuak salbatu nahi izan zituzten. Justu mugimendu-

Politikoki ez da interesatzen berrestea "herriak bakarrik salba dezakeela herria", Berri Txarrak taldearen abestiak dioen bezala; Carlos Mazón gogaitu egiten dute boluntarioek

rik gehieneko une hartan iritsi zen hondamendia. Auto eta kamioien gainean harrapatuta edo zuhaitz bati *in extremis* helduta zeudela, milaka pertsonak mezu bat jaso zuten larrialdi zentrotik, gomendatzen ziena etxetik ez irteteko. Berandu zen. Emaizta jakina da. Ehunka hildako eta desagertu. 1962ko irailaren 25ean Vallès eskualde katalanean izandako gertaera tragikoez geroztik, biktima gehien izan dituen uholdea.

Herritarrei abisatu ez izana arduragabekeria nahikoa ez bazen izan, PPren gobernuak frogatu zuen are okerrago egin zezakeela. Gainera, jarrera harroputza izan dute, bai Mazón presidenteak, bai Nuria Montes sailburuak. Etxe barruan gorpuekin bizi izan diren familiak, urik eta elikagairik ez dutenak, moztutako



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

errepideak eta trenbideak. Erantzuna berehalakoa izan zen eta milaka pertsona oinez abiatu ziren hiriburutik, jada elkartasunaren zubi gisa ezagutzen dena zeharkatuta, Turia ibaiaren hegoaldeko ibilgurantz, udalerrri kaltetuenak dauden tokiraino. Palak, kuboak, eskularruak, hondakinentzako zakuak, ur-botilak eta oinarritzko elikagaiak zeramatza-ten. Mazónen erantzuna mespretxua izan zen, eta haiek etxera itzularazteko mehatxua.

Izan ere, eskutan erratz bat zuten pertsonen irudiak erakusten zuen administrazio publikoek porrot egin zutela hondamendiaren kudeaketan. Politikoki ez da interesatzen berrestea "herriak bakarrik salba dezakeela herria", Berri Txarrak taldearen abestiak dioen bezala. Mazón gogaitu egiten dute boluntarioek, ezin hobeto irudikatzen dutelako gobernuaren eraginkortasunik eta aurreikuspenik eza. Bere gobernuak behin eta berriz minimizatu edo ukatu du berotze globala, zeinak kokatzen baititu Mediterraneoko euri-jasak planetako klima larrialdiaren testuinguruan.

Baina Valentziako kaleetan bizi izandakoak, nahiz eta oinaze izugarria utzi, ez du atzera bueltarik. Kaleko lokatza garbitu duten giza kateak lotura sozialaren paradigma berriaren parte dira, eta baieztatzen dute orain dela uena gure seme-alabei utzi nahi diegun munduari buruzko erabaki garrantzitsuak hartzeko. ●

Moltsa mehe



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

Duela bi aste, Frantziako irratien finantziamentua zalantzan zen, Frantziako Kultur Ministerioak %35 apaldu nahi baitzituen elkarte irрати lokalei bideratu dirulaguntzak. Orduan, 200 bat elkarte ziren lanje-rean eta horien artean Iparraldeko Euskal Irratiak.


Azalpena gibelapen-ekonomikoarena da, nahiago bada dei daiteke zorra, kiebra, iruzurra, gezurra; hots, ez omen da dirurik, batez ere ez da dirurik kulturarentzat.

Euskal Irratien arazoak aterabide bat izan zuen, behin behinekoa –halaxe bizitzen ikasiak baikara euskal herritarrok engoitik–, ondokora arte.

Gurean, aspaldian, Euskararen Era-kunde Publikoaren kasu erredundantea hor dugu, euskal kulturari zuzendu kredituen istorioa azken horren parekoa da, baita lekuko hainbat ekimenen diruztatzea ere.

Azken urteetan, molde errepikatuan, maiz estatuak, batzuetan eskualdeak, besteetan departamenduak –denak ere estatu mailako adar eta luzapenak– dituzte aurrekontuak mendre mantentzen, bide beretik egitasmoak atzeratzen eta prekaritatea luzatzen, baita hizkuntzaren eta kulturaren biziraupena –ez garapena– kolokan ematen ere.

Pentsa daiteke, euskaldunon kontua dela bakarrik, edo egitasmo bakar batzuen, baina ez da hala. Adibidez, iragan udaberrian, Britainiako hainbat kultur-elkarteri eskualdeko dirulaguntzak murriztu zitzaizkien. Kultura-eskubideak legetan jasotzen diren lurraldea, izan liteke selektibo, lagundu nahi den kultur ereduari begira? Hor ere arrazoi ekonomikoak aipatu zituen eskualdeko



PAULA ESTÉVEZ

prefetak, elkarteei ematekotan, beste alor zenbaiti kendu omen litzaiokeelakoan eta ezin... Duela zenbait egun, *La Montagne* egunkariak, Frantziako erdialdean zabalduak, honakoa jakinarazten zuen: Aquaserge deitu musika talde eta ikusgarri egileari ukatu egin zitzaion aitzinetik hitzemandako dirulaguntza, prefetaren manuz gertatu omen zen, diotenez arrazoi politikoengatik. Izan ere, Aquaserge Tarnac-ekoa da, Corrèze eskualdeko Millevaches ordokikoa,

eta badirudi *La Montagne*-ren arabera, prefetak lotura aurkitu zuela taldearen eta molde arras nahasian amaitu zen ustezko ultraezkerreko terrorismoaren afera baten artean, zeinetan Darmanin Barne ministroak nahi izan baitzuen Lurraren Altxamenduak mugimendua desegin –Estatu Kontseiluak eragotzi zuen, azkenean–. Aquasergen errua, beraz, lautada militantekoa izatea da, migratzaileak defendatzen direnekoa, oihanak eta ura zaintzen diren lekukoa. Uztailen, egunetik biharamunera murriztu zituzten Frantziako hainbat eskualdetako osasun zerbitzuek eskoletan egiten dituzten sexu heziketa ekintzak antolatzeke dirulaguntzak. Ekintza horietatik hainbat *Planning familial* [Familia plangintza] deitu egiturek dituzte gauzatzen eta heziketa alorrekoak dira, gazteen artean sexismoa garatuz doan garaian, bortxaketaren kultura oraindik ongi errotua duen gizaratean.

Eta horrela zerrenda luzea egin dezakegu, kulturaren eta heziketaren mugatze kasuez. Dela estatu mailan, dela eskualde mailan, baimenak, eskumenak eta dirutzak banatzen baitira eta kentzen, batzuetan nehor xuxen azalpenik eman gabe, "aurrekontu eskasa"-ren aitzakia erabiliz eta, noiztenka, aitzakia asmatzeko lanik gabe.

Egiten duguna gara. Egiten dugunak salatzen gaitu, izan hautuak, izan erabakiak, izan luzatzen diren eskuek edo bizkarrean ezkutatuak, izan zabaltzen diren mezuek edo isilarazten direnek. Frantziak ez du nehor lerrotik ateratzen ikusi nahi: horretarako ditu finantza legea, separatismoaren kontrakoa, ministroak, prefetak. Eta dirua, presio bide. ●

Megaproiektu Turistiko Antidemokratikoa



IÑAKI BARCENA
EKOPOL ETA
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Duela bi urte Urdaibai Guggenheim Stop! plataforma herritarra sortu zenetik, *Urdaibai ez dago salgai!* leloa nonahi ari gara entzuten. Joan den urriaren 19an Gernikan milaka lagun bildu ginen proiektu horri ezetza emateko eta, nire aburuz, hiru dira arrazoi nagusiak Busturialdean, Biosferaren Erreserban eta Oka ibaiaren estuarioan egin nahi duten museo istilutsu horren aurka egoteko.

Lehenik, megaproiektua da. Euskal ekologisten ekitaldian hitz eta kontzeptu hori agertzen da maiz. Megaproiektua, zergatik? Pablo Lorente, Sustrai Erakuntza Fundazioko kide nafarrak dioenez, ez da taimainaren kontua soilik, baizik eta kanpotik datorren proiektua dela, interes ekonomikoengatik, negozioa egiteko. Ere mu aukeratu baten “aberastasuna” eraisteko proiektua, alegia. Kanpoko eragileek diseinaturik eta etekinak kanpora eramateko eginda, hor dago koxka! Bide horretatik, estraktibismoaren dinamikak megaproiektuak dakartza. Globalizazio/glokalizazioaren eta merkatu librearen logikaren produktua dugu eta, gaur egun, antza, ezin zaie indar eta elite ekonomikoek galgarik jarri. Mega = milioi bat unitate, dirutan... euro asko.

Bigarrenik, turistikoa da. Bilboko Guggenheim museoa (1997) ikur turis-

tiko bihurtu da. Egun, turismoa industria-jarduera garrantzitsua da, jende eta kapital mordoa mugitzen dituen, baita arazo ugari sortu ere. Arazo sozio-ekologiko sakonak, ekosistemen galerak, biztanleen deserriratzek, energia eta materialen xahuketa, eta suntsiketa handiak ere. Horrexegatik mundu osoan, Venezian eta Bartzelonan, Kantabrian eta Balearretan, Donostian eta Busturialdean, “turismoaren desazkundean” aldeko mugimenduak ari gara ikusten. Diru bilketak esku gutxitan, langileen prekarizazio joerak zein galera ekosozialak... horiexek baino ez dakartza turismoaren industriak.

Eta hirugarrenik, antidemokratikoa da. Busturialdean, egun, Gernikako Gorroño alkateari zein Bizkaiko Aldundiari, baita Eusko Jaurlaritzari eta Madrilgo Gobernari ere, kritika hori zuzentasunez egiten zaie. Eta Guggenheim Fundazioari ere bai. Bizkaiko Aldundiaren kargu nagusiak (Elixabete Etxanobe) honelaxe zioen manifestazio erraldoiaren aurretik: “Oraindik ez dago ezer erabakita, prozesu parte-hartzaile bat martxan jarriko da, baina Guggenheim Urdaibain egingo da”. Hori demokraziaren eredu!

Txema Garcia kazetari lagunarekin ados gaude: “Museoa Urdaibai bera da, ez da besterik behar”. ●

Irautea



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Indarkeria matxistagatik Iñigo Errejónen aurkako salaketa dela-eta, badirudi batzuk konturatu direla ezkerreko alderdi, sindikatu eta erakundeetan ere emakumeok ez gaudela gizon kideengatik biolentzia jasotzetik aske. Argi geratu da, gainera, halako egoeratan batzuek ezjakinarena egin eta beste aldera begiratzea erabakitzen dutela, eta soilik mugitzen direla salaketa bat dagoenean edo/eta eraso publiko egiten denean. Orduan bai, errudunak bilatzen dituzte, protokoloek kale egin dutela aitzakiatzen dute, eta sorturiko krisia lehenbailen konpontzen saiatzen dira, ahal

den kalterik txikienarekin ateratzen, eta ez beti eraso egin diotena babesten.

Protokoloek funtzionatzen dutenean ere, zaila, ia ezinezkoa da antzematea ia oharkabean gertatzen den indarkeria: *arzalpena* edo *mansplaining-a*, hitzen txanda eta denbora metatzea, gutxiespenak... ingurune-biolentzia deitzen dena, alegia. Zenbaitetan jasaten duenak ere ez daki identifikatzen eta esajeratzen ari dela uste du, gainerako kideek ere erlatibizatzeke esaten baitiote. Eta horretaz ere hitz egin behar da, ezkerreko mugimendu mistoetan emakumeek irautea nahi bada, behintzat. ●

Mazzucato eta inor haserretuko ez duen industria-politika



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Bost hamarkada igarota, badirudi Washingtongo Kotsentsua atzean uzten ari garela. Krisi klimatikoak eta, batez ere, Txinaren igoerak interesa berritu dute estatuak ekonomian izan beharko lukeen gidaritzan eta parte hartze aktiboan. Garai bateko austeritatearen kudeatzaileek, Mario Draghi-k, kasu, industria-politika ausartak aldarrikatzen dituzte orain. Norabide horretan, itzal handia izan du autore baten obrak, baita Euskal Herrian ere: Mariana Mazzucato eta bere “Estatu ekintzailea”.

Mazzucatok proposatzen duena ez da berria, estatu garapenzale asiarraren bertsio berritua baizik. Industrializazioa eta berrikuntza ardatz dituen agenda proposatzen du, trantsizio ekologikoa eta desberdintasunaren murrizketa bezalako helburuak dituen agenda, zeina estatuaren, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko epe luzerako aliantzan oinarritzen den. Proposatzen du aldaketa klimatikoaren aurkako borroka egitea inbertsio publikoaren bidez eta inbertsio pribatua baldintzatzeko zenbait mekanismoren bidez, eta desberdintasunaren aurkakoa aurre-banaketa mekanismo bidez. Hau da,

Mazzucatok proposatzen du aberastasuna orain birbanatu ordez, aberastasun gehiago eta berria sortzea, ondoren modu progresiboan banatzeko

aberastasuna orain birbanatu ordez, aberastasun gehiago eta berria sortzea, ondoren modu progresiboan banatzeko.

Ikuspegi ezkertiarrenetik leporatu izan zaio kapitalismoaren defendatzaile irmoa izatea, keynesiar petoa, berak adierazi bezala, kapitalismoa bere buruagandik salbatu nahi duena. Baina, badu zentzurik kritika horrek? Ekonomiaren gidaritzan publikoa, inbertsioaren demokratizazioa eta epe luzerako planifikazioa, helburu sozioekonomiko jakin batzuen barruan, zalantzarik gabe,

alternatiba ekosozialista eraikitzeko ezinbesteko zutabeak dira.

Hala ere, epe luzerako ñabardura bat lirudikeena, proposamenaren epe motzerako muga nagusietako bat ere bada. Mazzucatok ez du kontuan hartzen kapitalismoa klase antagonikoen gizartea dela, ez ditu kontuan hartzen botere harremanak, eta datozkigun eskasia garaia ikusita, erabilera balioaren eta truke balioaren arteko kontraesan gorakorak ezinezko egingo duela sektore pribatuaren eta interes orokorraren arteko kotsentsua. Zenbateko desberdintasuna da desberdintasun onargarri bat? Estatuaren parte hartzea ekonomian klaseen arteko lehiak zehaztuko du, ez berrikuntzak.

Egungo urgentziak eraginda, progresismoak bere proposamenak besarkatu ditu, balizko errealismo bat oinarri, kapitalismoaren saihestezintasuna onartzean datzan errealismo bat, baina ez dituen horren joko-arauak aitortzen. Mazzucatok *Mission economy* azken liburuan baieztatzen du ez dagoela “merkatuaren portaerarik saihestu ezin denik”. Ados, baldin eta merkatu hori ez bada kapitalista. ●

FINALAURREKOAK

ZARAUTZ



Azaroak 24, igandea, 17:00



Aritzbatalde Udal Kiroldegia

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babesiak:



“

**Mundua eginez
egiten dugu
geure burua.**

Joxe Azurmendi

Bada esaldi bat
pentsamendu bakoitzarentzat...

Badakizu?

Egin zaitez **Jakinkide**

Urtebetez doan.

Paperean edo digitalean
etxean jasoko duzu.



Jakin _____ dabilen
pentsamendua

TRUMPISMOA

interes geopolitikoak printzipioen gaineratik

Argi eta garbi irabazi dio Donald Trump presidente errepublikano ohiak Etxe Zurirako lehia Kamala Harris egungo presidenteorde demokratari. 312/226-eko aldea izango du urtarrileko bozketan Hutesle Kolegioan. 2016an Hillary Clinton galtzaile izan zen, baina herritarren boz gehiago atera zituen. Aitzakia hori ez da bidezkoa oraingoan: bost milioi botoren aldea atera dio Trumpek Harris. Eta emaitzaren argitasun horrek berak biziro baldintzatuko du haren kudeaketa. Garaileen partetik eta galtzaileen aldetik.

 MIKEL ARAMENDI

Presidentetzarako hauteskundeetan joera hori berretsiz, errepublikanoek emaitzak hobetu egin dituzte, ia salbuespenik gabe, Senatuan nahiz Kongresuan. Bi ganberen kontrola beren eskuetan izango du Trumpen alderdiak (harena baita alderdia, jabetasunezko adieran... oraintsu arte *Grand Old Party* deitu ohi genuena baino gehiago).

Garbitasunari dagokionez ere, aitzakia gutxi du azaroaren 5ekoak. Begirale ugariak eta galtzaile saminduek ez dute aparteko arbuiorik azaldu, emaitza alderantzizkoa balitz askoren beldurra zatekeen moduan.

Honelakoetan klasikoa den “huts egin dute inkestek” desenkusak ere ez luke aparteko sinesgarritasunik eduki behar oraingoan. Estatuz estatu argitaratzen joan diren ehunka inkestek sasia

xehatzeak edozertarako aukera eman badezake ere, “inkestek baturaren” zeharbideak, taxuz egin den guztietan, emaitzak asmatu egin dituztela erakusten du.

Ezin esan, ordea, ganorarik gabeko emaitza baten aurrean gaudela. Alde handirik gabe, aspaldiko hilabeteetatik –demokraten hautagai ofiziosoa Biden zenetik– inkestek aurreikusten zuten berretsi badute ere emaitzek, sekulako desengainua jaso dute askok eta askok. AEBetan bertan, aho bete hortzekin geratu bide da jende arretatsu asko. Alderdi Demokrataren barruan arazo latzak mahairatu ditu porrotaren hausnarketak; izenen ingurukoak lirarteke kezkarik agerikoenak, baina sako-nagoko gogoeten beharra ere badakar azaroaren 5ak.

Begien bistakoa baita, alde batetik, demokraten “gutxiengoaren baturarekin gehiengoa egin” estrategia klasikoak –lehendik ere gainbehera zetorrela erakusten ari zenak– hondoa jo duela. Hamarkadatan bere-bereak izan dituen gotorlekuak (beltzak, latinoak, langile industrialak, katolikoak eta, neurri batean, emakume kontzientziadunak) errepublikanoekin partekatu behar izan ditu oraingoan, kasuan kasuko arrazoiak direla medio, baina joera komun batean. Eta ez du horren ordezkapena aurkitzen asmatu.

Ondorengo hilabeteetan, krisi horren inguruko oldozpenak (eta liskarrak) ikusi beharko ditugu Alderdi Demokratikoa, bi urte barruko *midterm* hauteskundeek argibide demoskopiko berrien bat ekarri zain.



YOU'RE FIRED!

YOU'RE FIRED!

YOU'RE FIRED!

STRONGMAN

Errepublikanoengan, noski, giroa alderantzizkoa da. Baina ez, haatik, buruhausterik gabea. Berezkoa duen egozentrismoaz harago, Donald Trump partiduaren jaun eta jabe bihurtu baita emaitza horiekin. Etxe Zuriko nagusi ez ezik, Senatuko eta Kongresuko jaun ahalguztiduna delako orain. Errepublikanoen artean zerbait izan nahi duenak, haren esanekoa izan beharko du aurrerantzean, funtsezkoa den edozein gaitan. Eta horrek ez du aurrekaririk ez Alderdi Errepublikanoaren historia luzean ez, esango nuke, Estatu Batuen historia osoan.

2024ko azaroaren 5eko hauteskundeek diktadore baten tankera handia duen *strongman* bat sagaratu dute, *kau-dillo* bat zeinak transmisio-uhalek modura erabil baitezake alderdiaren egitura, ganbera legegileak mugarriztatik kanpo atera ez daitezten eta aginteak behar duen guztia egin dezan. Auzitegi Gorenean ere nekez aurkituko du galgarik, bere neurrikoa baita jada hein handi batean, eta balizko izendapen berriak inoiz baino erosoago izango baititu. Botere-banaketa mito izatetik oso hurbil geratu da Estatu Batuetan. *Project 2025* deituak egin nahi duen moduan haren itsumutil izateko ahalegin "zuhurren" arrakasta ikuskizun geratzen da, bestalde.

Ez dira gutxietsi behar, nolana ere, horrelako erregimen batek berezkoak dituen herrenak. Lehendabizikoa, aginpidearen iturria bat eta bakarra izaki, haren hurbiltasuna erabakigarria izango dela edonorentzat edozertarako... Eta hori liskar-iturri ikaragarria izan daitekeela noiznahi eta nonahi. Trumpen aldakortasunak, eta bere ingurukoak elkarrekin etsaituta edukitzeko joera patologiko samarrak, ez du batere lagunduko aje hori samurtzen.

Aparteko arazoa izan daiteke bere barne-politikako neurri bereziena izan nahi omen duen administrazioaren erabateko erreforma horretarako edo, Elon Musk bezalako *outsider* kontrolagaitz bat tartean sartzea. Trumpi aspaldiko fideltasuna gorde diotenen ezingo dute begi onez ikusi halakoan agerpen ahaltsua, asko edo gutxi bakoitzak dituen bezeria-sareak kaltetuko dituelako...

Eta oinordetzaren fruitu pozoitua ere berehala izango delako mahai gainean. Pertsona edadetua izango da 47. presidentea, eta lehen eguna baino aurreragotik, argi dagoen gauza bakarretakoa

Alderdi Demokrataren barruan arazo latzak mahairatu ditu porrotaren hausnarketak; izenen ingurukoak lirateke kezkarik agerikoenak, baina sakonagoko gogoeten beharra ere badakar

da bera ez dela 48.a izango. Agintaldia-
ren ezegonkortasun-faktore nagusieta-
koa izango da ebidentzia hori.

EKONOMIA, AIXKIRIA

Emaitzen zergatia argitze aldera, alde askotatik aipatu da ekonomia-eragina, batik bat inflazio-maila altuek jende xehearrengan egin duen kaltearengatik. Ez nator bat ikuspegi horrekin baina, edonola ere, inflazioa eta faktore makroekonomiko nagusiak ez daude Etxe Zuriaren manupean, baizik Erreserba Federalaren Sistemarenean. Eta Trump-ek agindu arren hala jarraituko dute-

la ematen du; edo, behintzat, Jerome Powell-en asmoa hori dela esan liteke. *Strongman*-aren kontrapisu bakarretakoa izan daitekeela esan dezakegu.

Ez da huskeria. Lehen agintaldian ere botere-palanka hori kontrolatu nahi izan zuen Trumpek, baina Auzitegi Gorenean baino askoz arrakasta gutxiagorekin. Eta horretarako, apenas aurkituko duen orain ere plutokraten oniritziarik: ortodoxia ekonomikoa funtsezkoa da negoziotetarako, Etxe Zuriaren agenda soziopolitikoekin talka egingen badu ere.

Inflazioaren auzian –eta harekin uz-tarri motzean lotuta dagoen finantza-politikan–, beraz, Trumpen gurari-
ek baino zeresan handiagoa izango dute haren politiken emaitza ekonomikoek: erregaien prezioak, Txina eta Europari ezarritako muga-zergek, immigrazioaren murrizketak lanekuaren prezioan izan dezakeen eraginak...

Izan ere, immigrazioarena bezalako gaiak gizartea asaldatzeko ("esnarazteko", beren hizkeran) eta borondateak bilbatzeko tresna sozial hutsak balira bezala erabili ohi ditu trumpismoak; baina inoiz ere halakoan ifrentzu ekonomikoa aintzat hartu gabe. Eta horrela, duela mende bateko panorama bertsura itzuli dira AEBak: immigrazioarekiko eskuzabaltasuna eskatzen dute korron-



APPHOTOYUKI IWAMURA



REUTERS

te ideologiko aurrerakoiek... eta kapitalaren zati handi batek; eta itxitasun gogorrena herritarren multzo ikusgarri batek. Arazoaren erpina izan daiteke “talentuaren kudeaketa” deitu genezakeena, *China Strategy Initiative* bezalakoek kolapsora eraman dezaketena.

NAGUSIA ETA BAKARRA

Trumpen bigarren agintaldiak atzerrirako –hau da, mundu osorako– izan ditzakeen ondorio eta eraginaren prospektiba guztiz aieruzkoa da, haren pertsonalismoa eta aurreikusteko zailtasuna aintzat hartzen badugu. Izen hori merezi lukeen programarik, ez eta atal horretaz balizko arduradun ziur samarrik ezagutzen ez zaion heinean, bere lehen agintaldiko aurrekariak eta kanpaina-testuinguruan kanpo harremanei buruz egin dituen adierazpen solteak dira argibide bakarrak. Eta haietaz baliatu beharko da prognosi minimo baterako.

AEBetako segurtasun- eta estrategia-guneeen gogapen erkidearekin bat etorrita, Trumppek irmo uste du Txina dela arerioa. Nagusia ez ezik bakarra; beste jazargo guztiak, maila apalagoko gorabeherak lirakeke, kasik baztergarriak. Eta ñabardura horrek aginarazten dio

Hauteskundeek diktadore baten tankera handia duen *strongman* bat sagaratu dute, *kaudillo* bat zeinak transmisio-uhala modura erabil baitezake alderdiaren egitura

talka zuzenean Biden- eta Obama-administrazioen geoestrategiaren zutabe nagusienetakoa izan denarekin: haien tza, Errusia betiereko etsai moldakaitza izan bada, Trumpen iritzi edo asmoa da AEBak Errusiarekin adiskidetu eta hura Txinarekin etsaitzea lortu behar duela. Horrexegatik izan du garbi lehen unetik Ukrainako gerra Biden-administrazioaren hutsegite barkaezina dela, Errusia Txinaren besoetara bultzatu duelako, batik bat. Alderantzizko bideari ekin behar omen dio agintaldiaren lehen egunetik.

Burubero baten ateraldia baino funts gehiagoko zerbait da. Zendu berria den H. Kissingerren strategiaren ifrentzua litzatekeela esan genezake: inoiz ez da aldi berean bi etsai handi(en)ekin borroka egin behar; haietako bat zeure aldera ekarri behar duzu, bestearen aurka. Jakinaren gainean edo oharkabean, Trumpen egitasmoa izango litzateke Kissingerrek Nixonen aginduz 1970eko hamarkadaren hastapenean Txinarekiko harremanak “normalduz” egin zuenaren itzulerako partida moduko zerbait. Orduko helburu berberekin: *divide and rule*. Orduan Vietnam eta Kanbodiako gerra, Chiang Kai-shek eta beste hamaika gorabehera aparkatuz egin behar izan zen; orain, Ukrainako gerra, Nord Stream, Kaukasoko gorabeherak eta abar zokoratuz egin beharko litzateke.

KORAPILOAK

Korapilo oso bihurriei askabide oso sinpleak emateak beti du, ordea, porrot egiteko arrisku ikaragarria, eta ez litzateke hau salbuespena izango. Errusiari ezarritako zigor ekonomikoekin, oina ze sozioekonomiko larria erakarri die Biden-administrazioak bere aliatuei,



THOMAS PETER / REUTERS

bereziki europarrei; haiei orain, besterik gabe, 180 graduko biraketa eginaraztea ez litratzeke doakoa izango. Baina hala-korik gabe Errusiarekin inolako adiskidantza lortzea ere ameskeria da. Ukraina arazoaren osagaietako bat da, soilik.

Sakoneko katramila, deabrutuagoa delako. Alemania, Italia eta Japonia –gerran menderatuak eta, *de facto*, oraindik ere herrialde okupatuak–, edo Erresuma Batua eta Frantzia –gerran irenduak– ez bezala, Errusia potentzia militarra eta, hein batean, ekonomikoa baita bere kabuz. Alegia, burujabetasun estrategikoa galdu ez duena (Indiaren kasuan ikusten ari garen bezala; eta... aldeak handiak, Txinarekin jada gertatu den moduan). Billar-jokaldiak baino gehiago beharko dira Errusiak eta Txinak gaur egun duten ezkontza guztiz interesatua puskatzeko.

Zailtasun gehitua da Trump bera eta haren ingurua direla, nik uste, hamarkada askoan AEBetan Txinari buruz ezjakintasun larregiena duen elitea. Ezagutza, haren aurkako propaganda zabarrenera mugatua dute, eta *Yellow Peril* xenofobia klasikotik asko aldentzen ez den ikuspegia dute ideologiatzat. Kissinger eta beste batzuen ezagutza eta pintzel finetik ezin urrutiago.

Trumpen iritzi edo asmoa da AEBak Errusiarekin adiskidetu eta hura Txinarekin etsaitzea lortu behar duela

Trumpen ikuskera, ez Ekialde Ertainean eta ez beste inon, ez da printzipio batzuetatik abiatzen, baizik interesetik

GERRA BAI ALA EZ?

Araoaren gakora garamatza horrek: AEBen eta Txinaren arteko jazargoak zuzeneko gerra bat ekar ote dezake Trumpen bigarren agintaldian? Kanpainako, baina baita handik kanpoko

adierazpen publikoetan ere azaldu ohi duen gerrekiko errefusa bere horretan hartuko bagenu, esan liteke orain arte baino urrunago egon behar lukeela bi handien arteko gerra-arriskuak. Baina Trumpen gerra-errefusa ez da inoiz izan bakezaletasuna, eta betiere ulertu behar da AEBek zuzenean parte hartu (eta ondorio batzuk bederen nozitu) behar dituen guduei buruz ari dela. *Proxy war*-ak ez dira inoiz uko horretan barne hartuta egon, eta inork ez dio inoiz fitsik entzungo Trumpi aurrekontu militarra gutxitzearen alde.

Gakoaren muina da posible ote litzatekeen Estatu Batuek Txina murgilaraztea gerra subsidiario horietako batean Taiwanen, Filipinekin Hegoaldeko Itsasoan, Koreako penintsulan, Japoniarekin Ryukyun... gaur-gurkoz imajinariak diruditen agertokiak aipatzearen. Beste batzuk (Myanmar, India, Vietnam) askoz zailagoak lirateke.

Ez da gutxietsi behar posibilitatea, batez ere Taiwan eta Filipinetako kasuan. Bere lehen agintaldiko aurrekariak erakusten du Trump-administratioak lehendabizi Txinaren ekonomia kaltetzeko ahalegina egingo duela, muga-zergekin eta otutzen zaizkion tresna ekonomiko guztiekin. Baina bide hori

ustiatuta dago jada eta emaitzak ez dira egundokoak. Oinezko estatubatuarrei eta bertako enpresa askori kalte astunak egiten dizkie, beste aldean apenas nabaritzen diren zauriak eragiteko. Halakoen antzutasuna berretsi ahala, liskar armatuak sutzeko tentaldia biderkatu egingo da, batez ere Estatu Batuetan bertan egoera ekonomikoak okerrera egiten badu.

Ez dirudi horren erraza Trump bera horrelako joaira bortitz baten zale kartsu bihurtzea; baina bere inguruan izango dituen *China hawk* ugarien (S. Bannon, B. Hagerty, N. Haley, R. Grenell, T. Cotton eta gainerakoen) bulkada tenore horretakoa izango da, Pentagonoko goi-arburadun profesionalen artean bezala. Txinaren zuzeneko borroka atzeratzeak AEBen indar-harremana okertzea besterik ez duela egiten uste baitute ia denek, aspalditik. Kontrakoa izan daiteke, haatik, E. Musk eta gisako plutokraten koruaren leloa, betiere Trumpentzat gustagarriagoa izan dena. Egungo munduko bi potentzia handien arteko zuzeneko gatazka bat erabateko Harmagedona ez beste zerbait izan ote daitekeen, hori da akabuko itauna.

Edonola ere, ondorioztatu behar litzateke Asia Ekialdeko agertokiak erabateko lehentasuna izango duela Trumpen kanpo-estrategian. Eta bertako aliantza-bilbea ere lehentasunezkoa izango dela, bide batez.

ALIATUAK ETA MORROIAK

Baina komeniko da aurretiaz kausitzea nola ulertzen dituen aliantzak AEBetako 47. presidentek. "Ardatzak" edo "ententeak" ez bezala, egitate eratuagoak, arautuagoak, izan ohi dira aliantza geopolitikoak, bazkideen balizko berdintasunaren fikzioa oinarri dela. Gero,

Asia Ekialdeko agertokiak erabateko lehentasuna izango du Trumpen kanpo-estrategian. Eta bertako aliantza-bilbea ere lehentasunezkoa izango da

Ukrainako gerra urrutiegi joanda dago, egun batetik bestera konpondu ez ezik baretu ere ahal izateko, eta ez da Trumpen bereizgarria jokaldi luze eta konplexuetan murgiltzea

errealitatean, "herrialde alfa" bat izaten dute betiere, eta haren esana lege izaten da, urrutira joan gabe egiaztatzen ahal izan dugun bezala. Trumpentzat, ordea, bere lehen agintaldian NATOri buruzkoan ikusi zenez, funtzionatzeko eredu hori ere "asanblearioegia" zen, batez ere diru- eta baliabide-ekarpenak egiteko eran; eta sustraitik eraldatu behar zen, nagusi gorenaren egitasmoen inguruan diziplina ezartze aldera. Aliatuak nagusiaren morroiak izan behar zuten, labur esanda.

Horren antzeko zerbait lortu du NATO-n, Ukrainako gerrari esker, aliantzen oso bestelako ikuspegia lukeen Biden-administrazioak: diru- eta baliabide-ekarpenak biderkatu dira, Ukrainarako bidalketak hitzartutakoetatik nahiko hurbil egon dira, "aliantza-giroa" biziro hobetu da bere garaian Macronek "garun-heriotza" deitu zuen hartatik. Alemaniaren gerraontziak Taiwango itsasartea endredatzera joatea ere lortu da. Lehen aldiz, ehun urte baino gehiagoan.

Trumpen bigarren agintaldia lehen-dabizikoaren *remake* bat bada, hori guztia ere ezerezean gera daiteke, Ukrainarekin zerikusia duen guztia abiapuntu dela. Sarkastiko samarra litzateke Europako NATOkideek ia aho batez saihestu nahi izan zuten gerrari beraiek bakarrik eutsi behar izatea hiru urte geroago. Baina gerra urrutiegi joanda dago, egun batetik bestera konpondu ez ezik baretu ere ahal izateko, eta ez da Trumpen bereizgarria jokaldi luze eta konplexuetan murgiltzea.

Aburu horrek berak balio du Ekialde Ertaineko gatazka orokortutako eta, bereziki, Gazako sarraski higuigarri-rako. Pozez txoratzen txalotu du Trumpen garaipena Netanyahuk, orain arte egindako guztiaren bedekazioa ez ezik Iranekikoak behin betiko egiteko aukera izango duela ebatzi duelako edo. Goizegi izan daiteke halako poztasunerako: Trumpen ikuskera, ez Ekialde Ertainean eta ez beste inon, ez da printzipio batzuetatik abiatzen, baizik interesetik. Eta haren interesak, lehen agintaldian erakutsi zuen bezala, bi zango ditu eskualde horretan. Bat, bai, Israel da; AEBetako barne-zioengatik, ez beste ezerengatik. Beste zangoa, ordea, Arabiar Penintsulan eta Pertsikoan datza. Eta biak behar ditu ibiltzeko. ●

AZAROAK 7-17

HARRIAK

Erresistentzia istorioen zinemaldia

hariak.hernani.eus

@hariakzinemaldia

Hernaniko Udala

Donostiako Egiako eta Gasteizko Errotako mobilizazio arrazistak (eta etorriko direnak): Kointzidentziak eta galderak

Azken asteetan mobilizazio arrazistak piztu dira Gasteizko Errota eta Donostiako Egia auzoetan, eta biek iragarri dute asteroko deialdiei eusteko asmoa. Haien artean desberdintasunak daude, baita antzekotasun asko ere: sustatzailerak anonimoak izatea, konfrontazioa bilatzea, edo beren burua eskuinetik kanpo kokatzen duten herritarrekin

konektatzeko gaitasuna. Galdera are gehiago uzten dituzte airean: PP ari al da horiek sustatzen? Mobilizazioak sakondu eta zabaltzeko arriskua dago? Euskal jendarrea oro har eskuinerantz bultzatu dezakeen mugimendu baten aurrean al gaude? Ezkerrak ba al du erreminta diskurtsibo eta praktiko egokirik borroka honetarako?

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Mobilizazioen bultzatzaileen anonimotasuna da lehenbiziko kointzidentzia bat, komunikatzeko bideak ezberdinak izanagatik ere. Gasteizko Errota auzoko atarrietan sinatu gabeko kartel batzuk jarri zituzten urri hasieran, auzokideak hilaren 8rako kontzentrazio batera deituta, “delinkuentzia eta lonjen okupazioa” hizpide hartuta eta *Delinkuentziarik gabeko auzo seguru baten alde* lelopean. Astebete beranduago kontzentrazioetik manifestaziora pasazen deialdia eta ordutik asteartero ari dira egiten, deialdiz deialdi auzokide gehiagoren parte hartzearekin (azken asteartekoan 300 inguru). Donostiako Egian gertatutakoa ezagunago da,

oihartzun handiagoa hartu baitu. *Lo que no te cuentan de Donosti (LQNCD) izeneko Telegram talde eta Instagram kontu anonimoetatik deitu zuten kontzentrazioa urriaren 22an, eta astelehenero mobilizatuko direla jakinarazi dute.*

Tankera horretako adierazpen arrazistak izan dira aurretik ere, urrunago joan gabe urri hasieran Trintxerpen, baina Egiako eta Errotako gertaerek jauzi kualitatibo bikoitza konpartitzen dute: batetik, mobilizazio iraunkorra planteatu dute; bestetik, herritarren arteko konfrontazioa bilatu dute. Egian, Kaleko Afari Solidarioak kalen bizi diren herritarrei janaria banatzen dien ordu eta toki berean deitu dituzte kontzentrazio batzuk. Gasteizko Errotan, gazte arra-

zializatuek okupatu dituzten bi lonjen paretik egiten du bidea manifestazioak. Bietan izan dira liskarrak eta tentsioak.

ZEIN DA PP-REN PAPEREA?

Donostian, udaleko PPko hiru zinegotziek hartu dute parte orain arteko bi mobilizazioetan, eta liskarrak izan ziren lehenbiziko hartan “hainbat tentsio unetan parte hartu zuten Jorge Mota eta Vanesa Vélez zinegotziek, bertan zeuden KASeko jarraitzaileei alde egiteko eskatuz, eta une batzuetan, irainduz”, Irutxuloko Hitzako Xalba Rámirezek jaso zuenez. LQNCD PPri zuzenean loturiko kontua ote da? Ez du erantzun borobilik eman mugimenduaren Instagram eta Telegram kanalak aztertu di-



AUZOKIDEAK

Gasteizko Errota auzoan astero burutzen ari diren manifestazio arrazistetako bat, urriaren 22koa.

tuen Ramírezek *Segurtasuna ala eskuin mutur berriaren amua?* erreportajea. LQNCdren jarraitzaile gehienak “alderdiekin bat egiten ez duten” herritarrak direla dio, baina baita ere mugimendua eta PP elkar elikatzen dutela, hainbat adibide emanda: Instagram kontuak PPren kanpainako hainbat bideo partekatu ditu 2022tik hona, edo, “nik ez dut uste profil hori asaldatzailea denik, egiten dutena da Donostian gertatzen diren gauza asko frogatu, sare sozialen bidez”, babestu zuen mugimendua Borja Corominas udaleko PPko zinegotzi eta bozeramaileak.

Errotan, alderdi bereko Gasteizko Udaleko zinegotzi batzuk ere gerturatu izan dira mobilizazioetara (baita Voxeko aldundiko ordezkaria ere). “Auzoko bizilagunen artean tentsioa, gatazkak eta botoa bilatzeko helburua” izatea leporatu die alderdi horiei Errota Zaharra auzo elkarteak. “Errotako manifestazioek Vox eta PPrekin lotura dute”, argitaratu zuen Gasteizberri hedabide digitalak urriaren 23an. ARGIAk jakin duenez, Errotako

Egiako eta Errotako gertaerek jauzi kualitatibo bikoitza konpartitzen dute: mobilizazio iraunkorra eta konfrontazioa planteatzea

mobilizazioaren sustatzaileetako bat PPko Gasteizko Udaleko bi ordezkariarekin bildu zen protestak hasi berritan. Horietako batek, gainera, Gasteizko udal politikaz haragoko funtzioak betetzen ditu alderdian, itxura guztien arabera (eta legez kanpoko negozioak egiten ditu lonjen okupazioaren aurkako ekintzaileak, marka da gero, higiezin sektorean).

Argi dago PP mobilizazioak eta konfrontazioa sustatzen ari dela, publiko-

ki egin dute. Baina, izan daiteke harago joan eta itzaletik antolatzen ere aritzea? Horrela izatekotan, aurrera begirako estrategia orokor eta iraunkor batean aurrean egon gaitzke? Erantzuna baiezkoa izan daitekeela esaten digute aurreko datuek, baina gaur gaurkoz ezin da ziurtatu. Edonola, erabateko logika politikoa luke. PPK bi karta nagusi jokatzen ditu Espainiako Estatuan, ETA eta inseguritatea-migrazioa-delinquentzia. Euskal Herrian, lehena produktu iraungia da; bigarrena, gaur gaurkoz dagoen ghettotik irteteko potentzialitate handiko karta dela ikusten ari gara.

Bien bitartean, Donostian zein Gasteizen elkarrekin gobernatzen duten PSE-EAJ koalizioak ustezko arerioaren markoa elikatzen jarraitzen du, irtenbidea Polizian eta delinkuentziaren aurreko “irmotasunean” kokatuz. Espektrorik politikorik instituzionalak eskuinera egiten jarraitzen du: PP Voxen posizio teorikoan, EAJ eta PSE PPrenean, eta ezkerre-ragoko alderdiak, oro har, isilegi. Baina eskuinerako lerratze hori ez da alderdi politikoen kontua soilik.

ARRAZISTAK BAI, ESKUIN MUTURREKOAK EZ

Gertatzen ari denarekin asaldatuta dauden Errotako hainbat auzokide eta lagunekin solasaldiak izan ditut azken asteotan, auzoko eragile sozialetan dabilzanak gehienak, baita Egia eta Donostiako batzuekin ere. Antzeko egoerak murratzen dituzte: mobilizazio arrazista horietara hurbildu diren herritar gehienak ez dira eskuin muturrekoak, askok eskuinarekin ere ez dute beren burua identifikatuko ziurrenik (Donostiakoak ukitu ultragoa duela ematen duen arren); mobilizazioez harago, taberna, komertzio edo lagun arteko solasaldietan komentario arrazista eta punitibo bortitzak ugaritu dira, baita *ezkerreko* jendearen artean ere. Zer gertatzen ari da? Gauza asko.

Egia da fokuan jarri dituzten gazte arrazializatuetako batzuk, batzuk, lapurretak egin dituztela, inoiz biolentok ere (tartean nire lagun zenbaiti), eta liskarrak izan dituztela kaleetan, gehienetan haien artekoak (ezin direnak deslotu bizi duten miseria materialetik, dituzten iragan gogorretatik eta etorkizun ezatik, Poliziaren eskutik pairatzen dituzten etengabeko bortizkeriatik, jendartetik jasotzen duten mesprextutik, kalean eta inongo sare sozialik gabe biziak sortzen dituzten osasun mental edota droga

kontsumo arazoetatik). Baina ez Errota ez Egia ez dira *oihana*, eta *inseguritatea* sortu zezaketen gatazkak eta bizikidetzaz arazoak asko dira gure auzoetan: polizia gehiegikeria, etxegabetzeak, familia barneko biolentzia, biolentzia matxista... Horiek ez dute tamainako asaldurarik sortzen, ordea. Zergatik gazte arrazializatuek bai?

Batetik, gure jendartean matxismoa nola arrazakeria zeharkakoa da, guztiongan egiten du habia handiagoa edo txikiagoa. Horregatik, besteak beste, delituak edo liskarrak sortzen dituen zuri gutar bat bada, "pertsone" da egilea eta erantzulea; aldiz, arrazializatu bestea bada egilea, ezaugarri kolektiboarekin izendatzen dugu (kasu honetan eta arrazakeria mailaren arabera, *putomoraa*, *moraa*, musulmana, magrebtarra...). Bestetik, zenbait hedabidek eta sare sozialetako kontuk aspaldi abiatu zuten kanpaina egunerokoa: etengabe jartzen dute fokua delitu eta gatazka horietan, inseguritatea, beldurra eta arrazakeria elikatzen dituen modu sentsazionalista batean (Arabian, *El Correoren* lana eta eragina erabakigarria da zentzu horretan, eta kontatzen didatenaren arabera Gipuzkoako kasuan baita *El Diario Vasco* eta telebista kate gehienena). Berdin egiten dute eskuin eta eskuin mutur politikoei. Finean, eskuina bere lana egiten ari da. Eta ezkerre?


EZKERRAREN AHULEZIA

Aurrez aipatutako hitz egindako pertsona horiek bat egiten dute honetan ere: ezkerre eta herrigintza oso ahul daude eremu honetan, beren diskurtsoak eta proposamenek ia ez dute konektatzen inseguritatea eta beldurra sentitzen duten auzokide horiekin, ez dira gai izaten ari eskuin politiko eta mediatikoak ezarri duen marko ultra arrakalatzeko, erreminta teoriko eta praktikoak falta dira. Zorionez, erantzunak egon badaude: KASEk afariak ematen jarraitzen du, Donostiako manifestazioa jendetsua izan zen, Gasteizko hamar auzo elkarrekin manifestazio arrazisten aurka egin eta konponbide "sozial" eta "integralak" eskatu dituzte, norabide berean adierazi dira Donostiako zenbait auzo elkarrekin ere, LQNCNren aurkako mobilizazio antifaxista deitu dute... Txalotzekoa eta ezinbestekoa da horien guztien eta beste askoren lana. Baina ez da nahikoa deriba arrazista eta autoritarioa gelditzeko.

"Markoa ezartzea lortu dute, eta marko horretan ezin dugu irabazi", adierazi



IRUTXUOKO HITZA



AUZOKIDEAK

Goiko argazkian, Vanessa Velez eta Jorge Mota PPko zinegotziak (Borja Corominas, atzean), KASEn kontrako elkarretaratzean. Behean, manifestaziorako deialdia Gasteizko Errota auzoko atari batean.

'Berdin' dio zenbateraino diren beldurrak 'errealak', zenbateraino 'sortuak': egon badaude eta politikoki eragiten dute

dit egunotan kezka ordezkarri politiko batek. "Gizarte ereduaren eta instituzioen arduraren diskurtsoarekin joaten gara auzokideengana eta ukitu ere ez ditugu egiten, 'bazatoz zure onkeriekin'..." azaldu zidan auzo elkarte bateko kide batek. *Berdin* dio zenbateraino diren beldurrak *errealak*, zenbateraino *sortuak*: egon badaude, politikoki eragiten dute, eta horiei ere erantzun beharra dago, tarteka behintzat lokatzetan sartzea eskatzen duena. Herritarren kezka eta beldurrekin konektatzeko, egungo markoan jokatu

beharrak aritu zitzaidan aipatu auzokidea: Delitugileak *ordain* dezala? Bai, baina justizia konpontzailearen logikan; segurtasuna? Denok bizi nahi dugu seguru, ez diezaigun oparitu hitza eskuinari, berrezaugarritu dezagun... Egungo markoan ere jokatu, baina beste batzuk elikatuta aldi berean. Eta, batez ere, gatazka interesatu eta mobilizazio arrazistak piztu aurretik lan egin, auzokideekin eta geure buru, lagun eta inguru ustez ez arrazistekin ere, mobilizazio gehiago piztu ez daitezen eta egiten dutenean posizio hobea egiteko aurre.

Asteotan Egian eta Errotan bizitzen ari garena azaltzen duten faktoreak errepikatu eta sakondu egingo dira hurrengo urteotan, ez gara horretan bereziak, gutxienez Mendebalde mailako fenomeno da. Eskuintetik eta goitik zer asmo duten argi dago, ikusten ari gara jada; ezkerretik eta behetik zer egingo dugu? Asmatzea gako erabakigarrietako izango da, erabakitzeko hurrengo urteotan faxismorantz egiten jarraituko dugun, edo sakoneko eraldaketei atea zabalduko diegun. ●

Martin Zelaia Garcia, Sustrai Erakuntzako kidea

“Ingurumen gatazkak tokikoak eta mugatuak ziren lehen, orain proiektu asko eta Nafarroa osokoak dira”

Ingurumena kaltetzen duten proiektuen aurrean laguntza tekniko, juridiko eta administratiboa eskaintzen du Sustrai Erakuntza fundazioak Nafarroan. Urteetako ibilbidea dute eta hamaika helegite eta informe osatu dituzte hainbat proiekturi aurka egiteko: AHT, harrobiak, zentral termikoak, egitasmo eoliko eta fotovoltaikoak, makroetxaldeak...

Berriki, *Nafarroan ingurumenean eragina duten proiektuetan herritarrek jarduteko gida* argitaratu dute eta PDF formatuan deskargatu daiteke Sustrairen webgunean. Taldearen ibilbideaz eta urteotako jardunaz aritu gara Martin Zelaia Garciarekin, eta gidaren edukiez Idoia Zulet Galérekin, Arankoa bulego juridikoko abokatu honek ondu baitu gida.

 GARAZI ZABALETA  IBAN AGINAGA



Martin Zelaia Sustrai Erakuntzako kidea eta Idoia Zulet abokatu, atera duten gida eskuan.

Noiz eta nola sortu zenuten Sustrai Erakuntza fundazioa?

2009an sortu genuen. Garai hartan, ingurumenari lotutako hainbat borroka genituen Nafarroan: AHT, Castejongo zentral termikoak, Erdizko harrobia... ingurumena kaltetuko zuten proiektu horien kontra mugitzen hasi zen jendea han eta hemen, baina, askotan, ez zekiten nondik jo ere. Manifestazioak antolatzen errazago moldatzen ziren, baina zailagoa zitzaien gauza juridiko, tekniko eta administratiboak aurrera eramatea. Castejonen bazegoen bizilagun talde bat alde juridikoan lan handia egina zuena, eta bururatu zitzaigun lanketa hori beste gatazka batzuetarako erabilgarria izan zitekeela. Haiekin hasi ginen taldea sortzeko ideia lantzen, haiek ordurako bazuten harremana bidelagun izan ditugun Arankoa bulegoko abokatuekin. Horrela hasi ginen.

Taldean ez zarete abokatuak edo zuzenbideko profesionalak. Gehiago duzue aritutik aditutik baino?

Hori da, ez da beharrezkoa abokatu izatea honetan eragiteko. Sustrai Erakuntzan boluntarioak gara, eta guztiok partekatzen dugu zaletasun bat: ingurumena zaintzea. Denok gara herrietakoak, eta gehienok lehen pertsona bizi izan dugu hainbat proiektu gure mendietan edo herrietan eragindako kaltea. Hainbat ingurumen borrokatan aritu gara buru-belarri, bai jendea antolatzen, baina baita tramitazio administratiboak, helegiteak eta horrelakoak egiten ere. Proiektu gehienetan, bide juridiko-administratiboak antzekoak izaten dira. Gero, helegiteetarako, proiektu bakoitzaren alde tekniko zehatza ezagutu beharra dago, geografia, erabiltzen diren tresnak eta horien inpaktua. Adibidez, duela bizpahiru urte Nafarroan eoliko eta fotovoltaikoen olatuarekin hasi zirenean, ikasi egin behar izan genuen: zer ziren, zein kalte eragingo luketen, nolako errotak eta plakak ziren... irakurri eta lanketa hori guztia egin behar izaten dugu.

Sumatu duzue ingurumena kaltetzen duten proiektuak ugaritu diren? Lan karga handitu zaizue azken urteotan?

Tira, lan karga antzekoa izan da beti, baina sentsazioa da lehen gatazka oso tokikoak zirela, mugatuagoak, eta makroproiektu handi gutxi batzuk zeudela: AHT, Nafarroako Ubidea... orain asko zabaldu da dena, Nafarroa osotik eta

Lorpen asko daude,
agian betiko gelditu
direnak ez, baina asko
oztopatu direnak bai

EAetik ere deika ari zaizkigu: poligono fotovoltaikoak direla, proiektu eolikoak direla, harrobiak... gatazka Nafarroa osora zabaldu da, eta lehen aipatutako proiektu orokor eta handi horiei gehitzen ari zaizkie berri hauek. Eromena da guretzat, proiektu asko eta toki askotakoak baitira aldi berean, eta bakoitza bere berezitasunarekin.

EAetik ere deitzen dizuetela aipatu duzu, baina zuen lana Nafarroara mugatzen da. Zergatik?

Bai, Nafarroako esparrura mugatzen gara, ezin garelako toki guztietara iritsi. EAEn ez dago horrelako talderik, eta hori, gure ustez, arazo bat da. Joaten gara batzuetan hitzaldiak ematera eta badugu hango jendearekin eta elkarteekin harremana, Euskal Herria Bizirik taldearekin, adibidez. Eta beti esaten dugu horrelako talde bat antolatu beharko litzatekeela herrialde bakoitzean, edo erkidego osorako bestela. Baina, zer gertatzen da askotan? Proiektu zehatzen kontra mugitzen garelako, eta behin proiektu hori desagertuta, jende bat erreta edo nekatuta gelditzen dela, eta ez duela jarraitu nahi.

Ingurumen kontzientzia orokor batetik baino, zuzenean norberari eragiten dioten proiektuen aurka mugitzen garelako izan daiteke, agian? Gure herrian suertatzen bada bai, baina bestela ez hainbeste?

Hori da, eta ez badago ezer inguruan, agian ez gara hainbeste mugitzen, edo ez diogu hainbesteko garrantziarik ematen. Niretzat berdin dio proiektu hauek Altsasun, nire herrian, edo Tuteran izatea. Orain, adibidez, Nafarroa osoko araztegiako lokatzak bi tokitan zentrali-

zatu nahi dituzte, Arazurin eta Tuteran. Biogasa egiteko erabili nahi dute, horrekin elektrizitatea sortzeko, eta gero, lokatz hori guztia inguruko soroetan botako lukete. Lokatz horiek kutsatzailerak dituzte, metal pisutsuak... sekulako kaltea da. Erribera ez dago hain hurbil niretzat, baina han gertatzen dena ere garrantzitsua da, zer esanik ez Nafarroan gure elikadurarako hango soroek duten pisuarekin.

Urteotan lortu al duzue bide administratibo eta judizialeatik proiektuak gelditzea edo oztopatzea?

Bai, adibide asko daude, agian betiko gelditu direnak ez, baina asko oztopatu direnak bai. Argiena, akaso, Erdizko mehategia da. Duela ia hogeitau urte hasi zen Magna enpresa Artesiaga inguruan mehategi erraldoi bat egiteko asmoz. Baztango herritarrek ezezkoa esan zuten, enpresa izutu egin zen eta alde egin zuen. Baina handik gutxira, proiektu bera hurbil zegoen beste toki batean egiten saiatu zen, Zilbetin, eta han ere antzekoa gertatu zen; Zilbetiko herritarrez gain, Nafarroa osoko jendea mugitu zen proiektuaren aurka. Hala ere, enpresak aurrera egin zuen, hondeamakinak sartu eta lanak hasi zituen legez kanpo, ez baitzuten Ebroko Ur Konfederazioaren baimenik. Epaiketa egin zen, gelditzeko agindua eman zitzaientzen, eta epaitegiek obra ezin zela egin ebatzi zuten azkenean, proiektua guztiz geldituz. Zer egin du orain Magnak? Bada, berriz bueltatu da Erdizera. Kontua da, Zilbeti eta Erdiz eremu babestu berean daudela, eta batean ezin bada egin, bestean ere seguraski ezingo dela. Baina epaitegietan hori ebatzi arte, prozesua asko luzatzen da. Eta epaileengan herritarren iritzia ere badu eraginik.

Garrantzitsua da, beraz, alde juridikoa kaleko oposizioarekin batera lantzea?

Guztiz. Ezinbestekoa da jendea horrelako proiektuen aurrean segituan mugitzen hastea, eta jarraipena izatea. Alegia, ez dadila izan orain topera, gero gelditu... ez, oso garrantzitsua da tentsioa beti mantentzea. Horrela, bai enpresak eta baita epaileek ere, ikusiko dute jendea proiektuaren kontra dagoela. Hori inportantea da. Gure lana aholkularitzara eta paper kontuetara mugatzen da, ez da mobilizazioak antolatzea, baina bai jendeari esatea, "aizue, mugitu behar zarete".

Eta, bi oposizio moduetarako, kalekorako zein judizialerako, lehenbailehen mugitzea hobe?

Bai, eta zentzu horretan, kurioa da proiektu eoliko eta fotovoltaikoekin gertatzen ari dena. Enpresen jokabidea, askotan, gauzak ezkutatzea izaten da, eta horrela, herriko jendea erdizka enteratu da zenbaitetan, edo berandu. Eolikoekin zer gertatzen da? Nafarroan, ia mendi punta guztiak publikoak dira, komunalak, eta enpresa udal edo kontzejuekin jarri beharra da harremanetan. Baina askotan, enpresek ez dute garden jokatzeko eta gauzak ezkutatzeko dituzte. Gertatu izan da, esaterako, udalera gutun

bat bidali beharrean, zuzenean alkateari deitzea, bidea ezkutuan hasteko, eta herritarrek jakin dutenerako proiektua aurreratuago egotea. Batzuetan, buletin ofizialean argitaratutakoan enteratu dira herritarrak, eta, kasu horretan, helegiteak egiteko epea da ordurako. Kasu horietan presaka jokatu beharra dago, proiektuaren inguruko informazioa bildu, irakurri, helegiteak prestatu... aldiz, egitasmoaren berri hasiera-hasieratik izanda, beste lasaitasun batekin joan daitezke planoak ikusten, jendea informatzeko eta mugitzea hasten.

Arankoa bulego juridikoko kideekin

gida osatu duzue. Zein helbururekin?

Askotan gertatzen zaigu, talde ekologista edo auzo elkarte batetik zalantza juridiko eta administratiboak planteatzean, guk erantzun batzuk badakizkigula, baina ez guztiak, eta, ez dakizkigun kasu horietan, abokatuengana jotzen dugu. Askotan, gainera, galdera berberak errepikatzen dira. Errepikatzen diren galdera horiekin dokumentu bat egitea izan da asmoa, guretzat ez ezik, jendearentzat ere lagungarri izan dadin. Momentuz, argitaratu dugun gida hau norbanakoei eta kolektiboek zuzendua da, baina aurrera begira Udalei begirako beste bat lantzen ari gara.

Idoia Zulet Galé, Arankoa bulego juridikoa

“Herritarrek esku-hartzeko dituzten bideak azaltzen ditu gidak”

Urteak daramatzate Arankoa bulego juridikoan Sustrai Erakuntza taldearekin elkarlanean, ingurumen gaiei lotutako babes eta aholkularitza administratibo eta juridikoa ematen. Idoia Zulet Galé abokatuak izan da *Nafarroan ingurumenean eragina duten proiektuetan herritarrek jarduteko gida*-ren idazketa lanetan aritu den kidea.

Zer jaso duzue gida honetan, eta zergatik argitaratu duzue?

Nafarroako Foru Komunitateko herritarrek haien ingurunea defendatzeko eta babesteko dituzten ingurumen-arauen bilduma aurkeztu dugu gidan, herritarrak subjektu aktibo izan daitezkeen. Izan ere, ingurumenean eragina duten aktibitateen gaineko arauak oso sakabanatuak dira, eta baita parte-hartze prozedurei dagozkien erregulazioak ere. Horrek asko zailtzen du pertsonen ingurumenaren defentsan errealki eta efektiboki eragiteko zein aukera dituzten ezagutzeko.

Ezezagun xamar zaizkigun eskubide horien artean zeintzuk landu dituzue gidan?

Hainbat alorretako eskubideak lan-

du ditugu. Hasteko, informazioaren sarbiderako eskubidea dugu, alegia, publikoak orokorrean ingurumenari lotutako informazioa jasotzeko eta eskatzeko duen eskubidea. Bestetik, parte-hartzeari lotutako alorra dago: interesa duten pertsonen –bai norbanakoei eta bai kolektiboek– ingurumenari dagozkion parte-hartze eta kontsulta tramitazioetan parte hartu dezakete, baita zenbait baimen prozeduretan ere. Eta bukatzeko, justiziarako sarbideari dagokion atala dago. Justizia, interes propioen defentsarako eta herri-ekintzarako ariketa bezala ulertuta, helegite administratiboaren bidez eta epaitegietara joz erabil daitezke.

Urrunekoa zaigu askotan alor hori, baina diozunez, herritar ‘xeheok’ ere badugu zer egina.

Bai, garrantzitsua da herritarrak alor legal eta juridikoarekin ere harremana izatea ingurumenaren defentsan. Administrazio publikoek dagozkie herritarrek modu errazean alor legalerako sarbidea eta parte-hartzea izan dezaten bermatzea, zailtasunik gabe eta diruari lotutako oztoporik gabe. Baina

errealitatea da oraindik traba asko ditugula gainditzeko, eta praktika asko hobetzeko.

Parte-hartzea bultzatzea izanen da, akaso, gidaren helburu nagusietako bat?



Herritarrek esku-hartzeko dituzten bide posibleak ulertzea nahi du gida honek. Garrantzitsua da parte-hartze hori ezagutzetik eta informaziotik egitea, garaiz ibilita eta modu kontzientean. Sustrai Erakuntza ere horretan aritzen da, momentu gakoetan eta herritarren esku-hartzea oztopatzen edo zailtzen den kasuetan laguntza ematen.

Administrazioek, udalek kasu, bestelako bideak ere izanen dituzte ingurumena kaltetzen den kasuetan, ezta?

Baimen edo hirigintza-bateragarritasun kontuetatik harago, administrazio publikoek, esaterako kontzejuek, udalek edo mankomunitateek, kontsulta-prozedura espezifikotan esku-hartzeko aukera dute, bai administrazio baimen-mailan, baina baita haien eskumenean dituzten ondasunen eta esku-bideen defentsan ere. ●

“Bidea moztu da eta hutsune batean gaude”

Igeriketa, patinetean ibiltzea eta irakurtzea gustuko ditu Leire Manzanares Etxeberriak (Donostia, 2005). Garapenaren nahasmendua dauka eta Zereginak Ikasteko Gelan (ZIG) dago. Gurasoekin batera informazioa bilatzen aritu da ikasten jarraitzeko aukerak aztertzeko, baina oztopoz betetako bidea aurkitu dute.

  OLAIA L. GARAIALDE



Leire Manzanares

Leire Manzanaresek pertsona baten laguntza behar du ikasketetan gidatzeko. DBHko 2. mailara arte, hezitzaile baten laguntza izan zuen, baina 3. mailatik aurrera laguntzarik jarri ez ziotenez, ZIG gelara pasa zen. Manzanaresek argi dauka formatzen jarraitu nahi duela. Gurasoekin batera, ikasten jarraitzeko dauden oztopoez mintzo da. Ate joka dabilta, baina deus gutxi lortu dute: “Besteek dituzten aukerak nahi ditugu”.

Orain arte jarraitu beharreko bidea “nahiko” idatzirik zegoen, baina bat-batean horma baten kontra jo dute. Han eta hemen ibili dira informazio bila, baina aukera “gutxi” aurkitu dituzte: “Bidea moztu da eta hutsune batean gaude. Zer egingo dugu orain?”.

Ikasturte honetan, ZIG gelan dago Manzanares. “Daukagun aukera bakarra ZIG gela da, baina soilik egon gaitzke hogeit urte bete arte”, salatu dute. Irailean hogeit urte beteko ditu Manzanaresek. Horregatik, urte bat gehiago

“Berehala bideratzen dituzte lanera. Beharrezkoa da 20 urterekin derrigorrez lanera joan behar izatea?”

luzatzeko eskatu dute gelako zenbait familiek: “Bagenekien ziurrenik ezezkoa jasoko genuela, baina agian horri esker datorren urtean beste batzuei aukera emanen diete”.

Hezkuntza premiak dituzten ikasleek kasuan, moldaketa kurrikularra egin, eta ikasleek beharretara egoki-

tuta lantzen dituzte irakasgaiak. Baina Manzanaresten eta beste pertsona batzuen kasuan, ezin dute titulurik jaso: “Teorian titulurik gabe ezin duzu ikasten jarraitu; orduan, aukera bakarra da Oinarrizko Lanbide Heziketa egitea, onartzen bazaituzte”.

Manzanaresten kasuan, DBH amaitu ez duenez Gureak enpresan praktikak egiteko asmoa dauka urtarrilean. Gureaken nagusiki industria, zerbitzu eta marketin sektorean jarduten dira, eta batez ere desgaitasun intelektuala daukaten pertsonekin lan egiten dute. Behin praktikak amaituta, bertan lanean jarraitzeko aukera dago, baina soilik gutxi batzuek izaten dute kontratua eta soldata: “Lan okupazionala egiten dutenek lanaldi osoa egiten dute lan, baina ez dute soldatarik jasotzen, 200 eurora iristen ez den eskupekoa baino ez”.

LANERA BIDERATZEKO PRESA

Aurreko ikasturtean Manzanaresi galdetu zioten ea zertan egin nahi zituen



praktikak, eta adierazi zuen ikus-entzunezkoekin zerikusia duen zerbait. Horregatik, horri lotutako praktikak egitea eskatu du Gureaken. Horrez gain, administrazioan praktikak egiteko aukera ere eskatu du. "Ideia polita iruditzen zaigu ikasten jarraitzeko. Azkenean, gure helburua da ikas-prozesuari ahalik eta zuku gehien ateratzea eta aurrera egiten jarraitzea", azaldu dute. Ez da soilik Manzanarenen eta bere familiaren kezka, ikaskide askorena ere bada: "Zergatik utzi behar diote ikasteari?".

Salatu dute presa handiegia dagoe-lanean hasteko: "Berehala bideratzen dituzte lanera. Beharrezkoa da 20 urterekin derrigorrez lanera joan behar izatea?". Manzanaresek bi ahizpa nagusi ditu, eta horiek oraindik ikasten ari dira: "Zergatik Leirek hasi behar du lanean? Zer presa daukagu gizarte gisa?". ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Besoak eta hankak, igeri egiteko".

DURANGOKO AZOKA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Urteroko zita DA

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Kanaberek aurten Artekale 18 stand-etik 23rako tartea apainduko dute. Durangoko kaleetan trago bat hartuz topatzen duzun lagunari garbiago azaltzeko, informazio gunearen ondoan, lehengo urteko leku berean. Baina toki berean, badira 2024an ere ARGIAren mahaietan nobedade bat baino gehiago.

Uzta oparoa izan da azken hilabeteotakoa liburuen kasuan. Aurkeztu berri du Garbiñe Larreak *Kosmetikoak sendabelarrekin* liburua eta aurreko urteetan argitaratutako *Sendabelarrek dakitena* eta *Sendabelar baratzea* liburu arrakastatsuen ondorengo nobedade horrek ere emango du zer esana. Irailaz geroztik, berriz, kalean da *Haziak* liburua, eta aurkezpenak ari dira egiten herriz herri, autonomia eriteko eta herria josteko helburuarekin. Jakin nahi baduzu haziak zergatik eta noraino diren garrantzitsuak herri eta kultura batentzat eta nola egin ditzakezun zureak, hauxe da Durangoko Azokan 2024an eros dezakezunetako bat; Miguel Arribas *Kelok* eta Marc Badalek idatzia.

Hezkuntzari lotuta, *Superbotereak* bigarren liburua (lehenengoa *Bidean*) du Koldo Rabadan Izagirrek eta hezkuntza-proiektua diseinatu eta martxan jartzeko hamar urrats proposatzen dizkio hezkuntza komunitate osoari.

Eta dultzaina entzun eta besoak gora jasota erraldoi eta kilikiekin dantzan ibiltzen den haurrik etxean baduzu, aukera polita duzu Adurrek eta Gorka Bereziartuak argitaratu duten *Abentura erraldoia. Salba dezagun kalejira* ipuina.

Pago-egurrez landutako euskarria izango da aurten beste nobedadeetako bat, ARGIAren egutegi tako klasikoa zintzilikatzeko. Eta baita urtez urte berritzen doazen egutegia bera, *Ilargiaren egutegia* eta *Ilargia eta landareak agenda* ere. Ez dira faltako aurreko urteetako produktuak ere, noski, *Hizki Pizti*, *Jarioka*, *Otu* edo *Xapoketan* jolasak, esaterako edo Bizi Baratzeak argitaratutako liburuak. Eta, nola ez, Garbiñe Larrearen eta Jakoba Errekondoren aurrez aurreko kontsultategiak izango dira askoren erakargarri.

ARGIAren edukiak irratietan



Bilbo Hiria

Lanaren ekonomia

Bi eguenetik behin, 18:00etan

Ibaizabal Magazina

Osteguna, 12:30ean

Hala Bedi

Hizpidea

Asteartea, 08:35ean

Arrosa sarea

Zebrabidea

Asteazkena, 17:10ean

Xorroxin

Xorrotx eta fin

Ostegun / ostiral eguerdian

Euskal Irratiak

Goiz berri

Osteguna, 06:55ean


Euskalerrria Irratia

Irrintzi plaza

Asteazkena, 16:30ean

Durangoko Azoka ez baita Landa-kora mugatzen, Inor Ez Da Ilegala egitasmoko arropak Santa Maria elizako arkupeetan jarriko den postuan eta metro gutxira espresuki egun horietarako irekiko den dendan eskuratzeko aukera izango duzu.

ARGIAren eskaintza aipatutakoa baino zabalagoa da oraindik eta dena ezin zerrenda nezake lerro gutxiotan. Durangoko Azokara gerturatzeko beste aitzakia bat baduzu, ARGIAren standetan zer gehiago topatuko duzun eza-gutzeko. ●



Sexu erromanikoa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Zamora, X. mendearen amaiera. Duero ibaiaren ertzean eta hiriko harresietatik kanpo Santiago de los Caballeros eliza eraiki zuten. Eliza barruko kapiteletan askotariko eszenak irudikatu zituzten, besteak beste, eduki sexualak zituztenak: orgia bat, emakume biluzi bat gizon baten zakilari eusten... Cevantoseko (Kantabria) San Pedro kolegiatiko kapiteletan, Teza de Losako (Burgos) San Nikolas elizan eta beste eliza erromaniko askotan ere antzeko sexu eszenak zizelkatu zituzten.

Orain arte hainbat hipotesi egin dira irudi esplizituen helburuaz eta, horien arabera, erliebeek bekatua irudikatuko lukete, saihestu beharreko jardunak, eta, beraz, kapitel horiek kastitaterako deia izango lirarteke. Baina Isabel Mellén arte historialari gasteiztarrek oso bestelako ikuspegia jaso du *El sexo en tiempos del Románico* (Crítica) liburuan. Mellénen ustez, erliebe erromaniko horiek interpretatzean aurreiritzi eta tabu garaiki-deak erabiltzen dira eta berak ikuspegi naturalago baten alde egin du. Sexua uste baino normalizatuagoa zegoen garai hartan, batez ere nobleen artean. Historialariak noblezia ikertu du nagusiki bere lanean, haiek baitziren eliza erromaniko asko eraikiarazten zituztenak. Eta haiek ziren, beraz, tenplua apainduko zuten irudiak aukeratzen zituztenak. "Ohitura sexual oparoak zituzten, haurrak izateak leinua indartzen zue-



Emakume bat alua erakusten Cervantoseko San Pedro kolegiatiko absidoko kapiteletako batean.

lako. Familia norbanakoaren gainera zegoen eta, ondorioz, sexua erdigunean zegoen". Irudi horiek nobleziaren baliokidetasun lotzen ditu, haurrak, oinordekoak izateko beharrezkoekin. Horregatik irudikatzen dituzte maiz haurdun dauden emakumeak edo erditze eszenak.

XI. mendean iritsi zen inflexio puntua. Orduan sortu zen elizaren muturreko zorrozkeria. Kleroaren gutxiengo bat sexua bekatuarekin lotzen hasi zen eta "ideia hori pixkanaka gizartean sartzen joan zen, gaur egun gorpuztasunaz dugun tabu horretara iritsi arte". Genitalitate

eguneroko kontua zela dio arabarrak, Erdi Aroan intimitateaz egun dugun kontzepturik ez zutelako.

Aldaketa hura ez zen bat-batekoa izan. Hasieran, herritarrek ez zieten kleroko kide horiei jaramonik egin; alderantziz, barre egiten zieten, garaiko literaturak jasotakoa kontuan hartuz gero. Baina sexuaren aurkako gurutzadak bere helburua lortuko zuen. "Ohitura sexualak aldatu nahi dituen eta bere boterea handitu nahi duen elizako nukleo txiki batean abiatu zen, eta, azkenean, mundu guztiaren ohean sartzea lortu zuten". ●



EARTH.COM

Mamutak ehizatzen teknika

Berkeleyko unibertsitateko (Kalifornia, AEB) arkeologo talde baten arabera, ezkerreko irudian ageri den eszena ez litzateke zuzena. Hau da, gizakiek ez zituzten lantzak jaurtitzen mamutak eta beste ugaztun handi batzuk ehizatzen. Horixe zen orain arte zabalduen zegoen hipotesia, filmetan, bideojokoetan... ikusi dugun teknika. Baina *Plos One* aldizka-

rian argitaratutako ikerlanak dio lantzak pika moduan erabiltzen zituztela eta lur-rean bermatzen zutela makil luzearen oinarria. Mamuta erasotzeko hurbiltzen zenean, pikaren harrizko punta zorrotza gora jasotzen zuten. Hala, gizakiek beren indarra erabili ordez, mamutaren beraren indarraz baliatzen ziren arma haren gorpuztean sartzeko. ●

HARREMAN TOXIKOEZ



JOSEBE BLANCO

Harreman bertikal eta asimetrikoen adibideak asko dira, eta beti ez zaigu rol bera egokitzen. Horrela, zenbaitetan, batzuek erabakitzen dute eta erabakitakoa gauza dadin lan egingo dute; gainontzekoen funtzioa da "goian" hartutako erabakiak gauzatzea edota onartzea. Egokitutako rola bete ezean, zigorrak.

Ez dut idatziko egitura politiko eta botere ekonomikoaren arteko harremanaz; horien barruko dinamikak ez baititut ezagutzen. Bai, ordea, begi bistan gertatzen diren emaitzez, bereziki herritar arruntongan bi esparru horietan josten diren harremanen ondorioez.

Aukera izan dut A Limia bisitatzeko. Ourenseko eskualde horretako biztanleek ezin dute iturriko urik edan; nahitaez, ur ontziratua erosi behar dute. Horren arrazoia da, bereziki, haragi-fabriek zabaltzen dituzten mindek sortutako kutsadura. Bertako uretan nitratoen maila 200 miligramo litrokoa da -Osasunaren Mundu Erakundeak eta Europar Batasunak 50 miligramotan ezarrita dute langa-.

Bertan, pisu handia du Coren enpresak eta pabiloietan bereziki gizentzen dituzte oilaskoak eta txerriak, baita txahalak eta untxiak ere. A Limiako lautadan 400 eta 500 haztegi artean daude,

orotara 75.000 "unitate ganadu larri". Hori dena 30.000 hektareatan. Eskualdean, animalia horiek guztiek sortzen dute 1,4 milioi pertsonak adina hondakin kopuru. Mindak zabaldu dira neurri-gabe soro eta mendietan. Hainbestekoa izan da demasia, non hasi diren mindak esportatzen beste eskualde batzuetara.

Herritarrek Auga Limpa Xa! plataforma osatu dute, eta, herritarrekin batera, nekazariak eta abeltzainek ere hartzen dute parte. Eskaeretako bat izan da haztegi gehiago irekitzeko baimenik ez ematea. Erantzuna izan da pabiloien arteko distantzia erdira murriztea; orain 500 metrokoa da tartea.

Gatoz Euskal Herrira, hemen ere baititugu harreman horien arrastoak. Beste ertz batetik helduko diet, halere.

Lekarotzen, Palacio de Arozteguia SL enpresak erosi zituen 45 hektarea nekazari-lur, gerora birkalifikatu egin zirenak. Herria proiektu turistiko horren kontra egon arren, Nafarroako Gobernuak indarrean jarri zuen Udalez Gaidiko Plan eta Proiektu Sektoriala, udalaren gaitetik erabaki ahal izateko, egitasmoa gauza zedin.

Aroztegiako makroproiektu turistikoaren kontra 2021ean egindako protesta baketsuen harira, zazpi lagunei ezarri nahi zaizkie 20 urteko espetxe zigorra eta

AGENDA

AZAROAK 13 DONOSTIA:

Hausnarrean liburuaz solastuko da Josebe Blanco. 18:30ean Kaxildan.

AZAROAK 15 GARTZAIN: Haziak

liburuaz hitzaldia emango du Marc Badalek. Elkartean izango da.

AZAROAK 22 BIRIATU: Basoaren

besta egingo da eta Jakoba Errekondok hitzaldia emango du.

AZAROAK 26 ZESTOA:

Kosmetika sendabelarrekin liburua aurkeztuko du Garbiñe Larreak. 19:00etan Portale kulturgunean.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN: idatzi solasaldiak@argia.eus helbidera.

56.000 euroko isunak. Erakunde kriminaleko kide izatea eta indarkeria delitua leporatzen dizkiete.

Iturrietako mendietan (Araba), 2021eko uztailan, egin nahi duten zentral eoliko baten kontrako mendi martxaren ibilbidea zehazten ari zirela, taldeko bat identifikatu zuten bi ertzainek. Handik zortzi hilabetetara, kide horri jakinarazi zioten Mozal legearen 35.6 artikulua urratzeagatik zehapen-espeditatea ireki ziotela, ustez, poliziaren eskaerari uko egiteagatik eta alde egiteagatik.

Zerrendaren luzea oztopatzen dit karaktere kopuruaren mugak.

Harreman batzuk toxikoak dira. Bereziki botere publiko edota ekonomikoa ez dugu onartzen.

Han zigorgabetasun osoz ari dira kutsatzen bizidunen bizitzarako funtsezkoak diren ura eta lurra; eta kutsatzaileei ez zaie ezertxo ere gertatzen. Are gehiago, erraztasun gehiago ematen zaizkie.

Hemen zigorra astintzen da bizidunen bizitzarako funtsezkoak diren ura eta lurra defenditzen dutenen bizkarrean eta poltsikoan. Are gehiago, zailtasun gehiago jartzen zaizkie. ●



A ZE FAUNA!

ITSASOKO ERRALDOI NEKAEZINA



IRATI DIEZ VIRTO

Badoaz basoak kolorez aldatzen, haizea hozten eta egunak mozten. Badator negua, eta lur lehorrean ageri da; baita itsasoan ere. Animalia migratzaileak hasi dira hegoalderanzko bidean, eta zerutik kurriloak hegan pasatzen diren bitartean, itsasotik zerea doa, ur epelagotara igerian.

Zere arrunta zetazeo bizardun (mistizeto) bat da. Askok balea esaten diote, itsas ugaztuna delako eta bizarrak dituelako, baina ez da hertsiki balea. Munduan lau balea espezie daude, horietako bat euskal balea (*Eubalaena glaciaris*). Animalia horri izena eman genion euskaldunok baina bizitokia kendu, eta orain Ozeano Atlantikoaren beste aldean bizi da gehienbat, Ipar Amerikako kostaldean barrena.

Zere arrunta bai topatu dezakegu Kantauri itsasoan, eta izatez, gure itsasoko zetazeo bizardun ugariena da. Baina ugartasuna aldatu egiten da urtaroarean araber; hain zuzen ere, animalia migratzaileak delako. Udan aurkitu ditzakegu zere

arrunt gehien Bizkaiko Golkoan: 2019ko azken estimazioen arabera, 1.000 zere inguru. Neguan, berriz, 250 bat egoten dira gure inguruko uretan. Nora joaten dira, ordea? Eta zergatik?

Bada, migratzen duten ipar hemisferioko animalia gehienak bezalaxe, udan iparralderantz igotzen dira elikagai bila, eta negua datorrenean beherantz abiatzen dira, hotzetik ihesi. Zere arruntak bizarrak ditu esan bezala, eta ezaugarri horrek pista bikaina ematen digu bere elikatzeko beharren inguruan. Munduko bigarren animalia handiena da zere urdinaren atzetik, baina bitxia bada ere, animalia oso txikiez elikatzen da (zere urdina bezalaxe), normalean uretan esekitako krillaz. Ahoa zabaldu eta ahalik eta ur gehien sartzen du, ondoren itxi eta bizarretatik ura kanporatzeko. Baina elikagaia bizarretan kargatuta geratzen zaio. Krillaren eta, oro har, zooplanktonaren ugartasuna hertsiki lotuta dago fitoplanktonaren ugartasunarekin, lehena bigarrenaz elikatzen baita.

ZERE ARRUNTA

Balaenoptera physalus

TALDEA: Ornoduna/Ugaztuna/Zetazeoa/Mistizetoa.

NEURRIA: 22-24 m (emeak handiagoak dira). 60.000-90.000 kg-ko pisua.

NON BIZI DA? Munduko ozeano guztietan, latitude ekuatorial eta polarretan izan ezik.

ZER JATEN DU? Krilla eta kopepodoak gehienbat. Arrain pelagiko txikiak edo txipiroiak ere jaten ditu.

BITXIKERIA: Zetazeo bizkorrenetakoa da igerian; 40 km/h abiadura lor dezake.

BABES MAILA: Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren *Zerrenda Gorrian* "Kaltebera" izendatua 2018tik.

Eta iparraldeko itsasoetan, udaran, fitoplankton *bloom* edo bat-bateko hazkundea egoten dira. Horregatik, hain zuzen ere, migratzen dute zere arruntek udaran goi latitudeetara.

Negua hurbiltzen den heinean, ordea, zere arruntaren ugalketa garaia iristen da, eta hegoalderantz bidaiatzen dute berriro ere. Ernaldiak urte bat iraun ohi du, eta hurrengo urtean ur epeletan jaioko dira kumeak, amak beste migrazio ziklo bat egin ostean. Zere arrunta ugaztuna da noski, eta horrek esan nahi du, gainontzeko ugaztunek bezalaxe, emeek titiak dituztela eta kume jaioberriek esnea hartzen dutela; uretan, bai.

1986an, Nazioarteko Baleazaleen Batzordeak (IWC, ingelesezko siglak) luzamendua jarri zuen indarrean baleen ehiza komertzialean. Ordurako, zere arruntaren ugartasuna nabarmen murriztuta zegoen Ipar Atlantikoan. Luzamenduz geroztik, populazioek gora egin dute, baina herrialde batzuek ehizan jarraitzen dute. Europar Islandia da zere arruntak ehizatzen dituen herrialdea, eta 2024ko udan 128 ehizatze baimena izan dute. ●



108 ORKIDEA EUSKALDUN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gero eta gehiago ikusten dira orkideak gure etxe barruetan. Bulego, denda, ile apaindegi, non ez daude landare edergarri horiek? Bat da denetan nagusi, hedatuena: tximeleta orkidea (*Phalaenopsis spp*). Loraldi ikusgarria du eta erraz bizi eta loratzen da gure giroko barruetan. Asia hego-ekialdetik, Australiatik eta Perutik datoz eta genero bereko espezie ugariaren arteko hibridazio askoren ondorengoak dira. Zuhaitzen gainean bizi dira, ez lurrean, alegia, epifitoak dira: hori dela-eta, loreontzietan ez du lurrik ekartzen, azal kozkor nahasketa bat baik. Sustraiak ontzitik kanpora luzatzeko joera du, zuhaitzetan bezala, eta hostoek egiten duten fotosintesia egiteko gai da. Lore sorta luzeak irekitzen ditu, tximeletaren tankerakoak; *Phalaenopsis* izena grekoko *phalaina*, “tximeleta”, eta *ospsis*, “antzeko”, hitzetatik datorkio.

25.000-30.000 orkidea espezie natural badirela uste dute. Horiez gain beste 60.000 inguru hibrido eta barietate sortu dituzte lorezaleek. Polo inguruetan eta basamortuetan izan ezik, ia mundu guztian bizi dira, gehiengo nagusia tropiko arteko lurraldeetan. Zuhaitzetan bizi dira asko, lurrean ere bai, eta gutxi batzuk baita lurpean ere (*Rhizanthella* generokoak). Belarkarak dira gehienak, eta urte asko bizi daitezkeenak ere ba-



Tximeleta orkidea (*Phalaenopsis spp*).

dira tartean. Batzuek bizimodua multzo handitan pilatuta egiten dute; beste batzuk igokariak dira, banila (*Vanilla fragans*) espezia ezaguna egiteko leka usaintsu sonatuak ematen dituena, adibidez. Usain ona bezala kiratsa ere hedatzen duten orkideak badira. *Egin*

egunkariaren *Hemen* astekarian Sergio Basurkok 1987ko martxoaren 20an *Orkidea: tropikoetatik datorkigun lore sorgindua* artikulua argitaratu zuen, eta begira zer zioen: “Alabaina, orkideen eskala aromatikoa are zabalagoa omen da. Usain zoragarrietatik hasi eta *Bulbophyllum beccarii* orkidearen kiratsarekin topo egin arte; hauetako bat marrazten zebilen biologo batek birritan txoratu eta konortea galdu zuen lorak zerion usain nazkagarriaren eraginez”.

Euskal Herria ez dago tropiko artean, baina orkidea dexente badugu, ehundik gora bai, eta denak lurrekoak. Orkideek duten sona eta bizimodu berezia dela medio, botanikari asko limurtu eta xarmatu dituzte. Hiru liburu oso badira gure lurralde txiki honetako orkideei eskainiak, gaztelera garbian denak: *Orquídeas de Navarra*, Marianne Van de Sluys eta Luis Gonzalez Artaberena, 1982koa; *Orquídeas de Bizkaia*, Amador Prieto Fernandezena, 2000koa; eta *Orquídeas de Euskal Herria*, Xabier Lizaur Sukiarena, 2001ekoa. Hiru horietan 108 mota behintzat jasoak daude, eta beste ale batzuk ere aipatzen dira.

Kolonbia da orkidea aukerarik handienetakoa duen estatua, eta horiek jaso eta jagoteko parke bat eraiki eta osatzen ari dira. Noizko Euskal Herrikoak ezagutzeko gure orkideen parkea? ●



Zigilu hauen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.

**HEMEN DAGO
NAFARROA**



ReynoGourmet.com

KOSMETIKOAK SENDABELARREKIN

KOSMETIKA INDUSTRIALAREN
AURREAN, EGIN EZAZU ZUK ZEUK

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Garbiñe Larreak *Kosmetikoak sendabelarrekin* liburua argitaratu berri du ARGIArekin. "Egin ezazu zuk zeuk" filosofia kosmetikoen mundura ekarrita, egunero koan behar diren produktuak egiteko liburu teoriko-praktikoa da. Eskuragarri dago azoka.argia.eus webgunean.

KOSMETIKO INDUSTRIALEN
KALTEAK

"Urtetan, kontsultako lanean, azaleko gaitzekin ikusi dut jendea, eta kasu askotan, ez ziren berezkoak edo naturalak, kosmetiko industrialek eragindakoak baizik", azaldu du Larreak argia.eus webgunean irakurgai dagoen elkarrizketan. Kremak eta bestelako produktuak ekoizteko enpresa handiek -eta ez hain handiek- darabiltzaten osagai sintetikoek kalteak eragiten dituzte pertsona askoren gorputzetan, Osasunaren Mundu Erakundeak ere ohartarazi duenez.

Pentsa, egunero, batez beste, ehun txikiko barneratzen ditugu kosmetiko industrialek bidez. "Jendeak ez badu kontzientziarik honen inguruan, liburuaren lana izango da hori ikusaraztea, baina baita irakurleari zenbait irizpide ematea ere, kosmetikoak erosterakoan kontuan izan ditzaten", dio.

Kosmetikoez hitz egitean, bada gutxitan zalantzan jartzen den beste gai bat: derrigorrezko edertasuna. *Kosmetikoak sendabelarrekin* liburuan oso kontuan izan dute hori, batik bat, nagusi den edertasun eredu kanonak ez dituztelako elikatu nahi izan. "Saldu nahi diguten edertasunaren kanon hau iragankorra da, eta atzean badago diktadura moduko bat, aniztasuna ez errespetatzea, zahartzaroarekiko fobia...", dio Larreak. Eta, horretan, "kosmetika naturala" bezala definitzen diren produktu *eko-friendly* asko ere erortzen dira. Beraz, ez espero zahartzea saihesteko trikimailu

KOSMETIKOAK
Sendabelarrekin

Garbiñe Larrearen liburu berria

Aurkezpen hitzaldiak



ORIO: Azaroak 14, 19:00etan
Kultur Etxean.

ZESTOA: Azaroak 26, 19:00etan,
Portale kulturgunean.

DURANGO: Abenduak 7, 17:00etan,
Durangoko Azokako areto nagusian.

miragarriak emanen dizkizun libururik. Bai, ordea, zuk zeuk kosmetiko jasangarri eta osasuntsuak prestatzen ikasteko gakoak.

SEI OSAGAI ETA ORDUERDI

Norberak etxean kosmetikoak egitea prozesu oso konplikatua eta garestia dela uste duenarentzat, berri onak daude. "Gorputzerako krema errazaren formula jaso dugu liburuan, adibidez. Sei osagairekin urte osorako bi pertsonentzat egin dezakegu krema, orduerdi inguru behar dira horretarako", dio Larreak. Azala garbitzeko eta zaintzeko, berez, oso produktu gutxi behar direla nabarmendu du, eta hori dela bilatu behar duguna, ahal den neurrian, eskura dugunarekin moldatzea.

Olio esentzialen merkatuarekin adi ibili beharra dagoela dio Larreak, iruzur asko baitago, eta olio esentzial sintetikoak nagusitu direlako. "Horiek erabiliz gero, etxean produktu kosmetiko kaltegarri bat egiten ari zara", gehitu du. Tranpa eta iruzurrei aurre egiteko eta kosmetikan ere autonomia bilatzeko erreminta ezin hobea dugu eskura orain. Edertasun kanonetik at, baina liburu ederra, benetan. ●



'EUSKAL MUSIKA ESZENA'

Zer da, baldin bada?

Gasteizen, Jimmy Jazz aretoaren hamabosgarren urteurrenaren harira, hitzaldi-ziklo bat antolatu dute lau astelehenez jarraian, urrian eta azaroan. Bi kronika jarraian: euskal musika eszenari buruzkoa haxe, eta hurrengo bi orrietan, arteaz eta politikaz.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DOSPORDOS / ARGIA CC-BY-SA

Mahai inguruaren gidari lanean ibili den Koldo Otamendi *Kojo* kazetariak argi esan du hasieratik: “Nik ez dut erreze-ta magikorik, definizio argirik, esateko zer den euskal musika eszena”. Izan ere, norbaitek esango du euskaraz egiten den musika oro dela *euskal musika eszena*, Euskal Herrian egiten dena, Euskal Herriarentzat egiten dena...

Konflikto horietan dabil Joseba Baleztena musikaria ere. Euskal Herrian muga jartzeaz aritu da, horri hizkuntzaren elementua gehitzeaz, baina, era berean, zerbait lokalagoa eta “partekatzen den espazio bat” ere badela uste du. Zentzu horretan, Baleztenak mahaikide izan dituen Amets Aranguren eta Julen Idigoras musikariak ez ditu preseski sentitzen bere eszena beraren parte. Aldiz, Eneritz Furyak musikariarengandik gertuago ikusten da. Beraz, adin kontua ere ez da, Idigoras urte gutxi zaharragoa baita Furyak baino.

“Zergatik diozu hori?”, galdetu dio Arangurenak Baleztenari. Eta erantzun dio: “Bizitzeko eta musika ulertzeko modu diferentea dugulako”. Gehiago garatu du Furyakek, ados baitator Baleztenarekin. Irungo Lakaxita gaztetzearen

ingurumarian kokatu du bere musika zaletasunaren eta hastapenaren garaia, *DIY* edo *Zuk zeuk egin filosofia*, Bidehuts zigilua... “Beti ibili naiz hamarkada bat zaharragoa den jendearekin, nire belaunaldiarekin harremana geroago egin dut, eta asko ari naiz ikasten orain”, finitu du Furyakek.

ETIKETAK, ZERTARAKO?

Zer da, beraz, *euskal musika eszena*? Modu erretorikoan, galderari galdera egin dio Arangurenak: “Eta zer ekarpen egiten du definitzeak?”. Bere ustez, ezertxo ere ez. “Ni gehiago nago *euskal musika* terminoan”, esan du, nahiz eta aitortu *euskal* horrek ere jendearentzat izan ditzakeela mila ulerkerak. “Baina gehiago nago horretan, *euskal musika eszena*-n baino. Izan ere, iritsi naiz pentsatzera eta zalantzan jartzera ea zein punturaino den interesantea auzi hori”.

Idigoras, musikaria izateaz gain, kazetaria ere bada Gaztea irratian, *B alde* saioaren zuzendaria eta aurkezlea da. Berak esan du “kazetarien hitz egiteko modua” dela kategorizazio eta etiketetan aritzea. Dena dela, bai: Idigorasen ustez ere euskarak egon behar du punturen batean. “Egia da musika instru-

mentalarena tranpatia dela, baina talde horrek euskaraz sortzen badu, *euskal mundua*-ren parte badira, ingurukoak... Baina euskaraz egiten duen orori *euskal musika* deitzea, *pop*-a edo *rock*-a bezala, oso anbigua iruditzen zait”.

Etiketetatik eta kategorietatik irten beharra azpimarratu du Arangurenak, musikariaren beraien aurka doalako. “Baina gu gara ere bai kanpora begira horrela erakusten dugunak”, zehaztu du. Dendetan *euskal musika* kategoria emateaz euskal kantugile orori, eta alboan *rock*, *pop* edota *indie* etiketadun apalak edukitzeaz, horretaz ari da Aranguren. Duela hamarkada asko bezala segitzen dugula esango luke baten batek, ez baitira soberra urte igaro, mugikorrik ez zen garaian, musika-irratietan euskarazko kantariak aipaturiko dendetako etiketapean aurkezten zirela.

PUBLIKOA NOLA DAGO?

Baleztenak eman du gakoetako bat, bere musika ibilbideaz mintzatzean, gaztetzxe eta tabernak bere “espazio basiko” direla adierazi duenean: “Lehen, gaztetzeeek aseguratzen ziguten leku bat, nahi gabe ere kontzertu bat geneukan astebururo; orain, sentsazioa dut pixka bat erortzen



Julen Idigoras, Amets Aranguren, Koldo Otamendi, Joseba Baleztena eta Eneritz Furyak.



ari dela eta *sold out*-aren fenomeno ari dela eragiten". Kasuren bat aipatu du, aretoren batek kontzertua bertan behera utzi izan duela aurre-salmentan, kontzertua baino bizpahiru egun lehenago, hogeitaz sarreraren bueltan "soilik" saldu zirelako. "Tranpatia da", esan du Furyakek. Genero eta estilo batzuk "horrelakoak" direlako, jende gutxiarekin egotekoak: "Dena ez da *popularra*".

Eta *popularra* denaz hitz egin behar da, fenomeno sozialari estuki lotua doan popularitateaz. Furyakek uste du pisu asko hartu duela alor "performatiboak", eta gero eta gutxiago beste kontu batzuek. Horregatik, ados dago Baleztenak aipatu duen giro aldaketarekin. "Beti egon dira proiektu batzuk lotuta, modu esplizituan, mezu edo estetika batzuei, eta orain hori dena askoz ere performatiboa da", adierazi du Furyakek.

Arangurenak heldu dio hariari, eta fenomeno sozialari, performanceari loturik dagoen eszena bati buruz hasi da hizketan: "Ez da kasualitatea eszena jakin horretan dagoen jende hori dela justuki ez duzuna topatzen beste kontzertu batzuetan. Ez dut inoiz topatu, nik buruan dudan jendea, modu anonimoz beste batzuen kontzertuak antolatzen. Musikatik urrutiago daude, eta performancetik gertuago".

EBENTISMOA

Ikusgarritasun gehien lortzen duten performanceak dira ekintza handiak. Ingurumari horretan dabilta musikari gero eta gehiago. "Badut sentsazioa,

"[BECa betetzea] ez da soilik hemen gertatzen, talde espainolak ere horrela dabilta; indar erakustaldi bat dira"

kontzertu bat kontzertu gisa konputatzeko, *ebentismoa*-ri loturiko epidemia izan behar dela", esan du Baleztenak, eta adibidetzat ipini, 25, 40 edota 60 pertsonako kontzertuek jada ez dutela lehen zuten balio bera. Publiko gisa, gauza bertsua: "Hor egon behar duzu, bestela *looser* bat zara".

Idigorasi ez zaizkio gustatzen gisa horretako ekitaldi handiak, nahiz musikari gisa jo izan duen horrelakoxeetan, eta zirrara apur bat ere sortzen dioten oholtzara igotzen den aldiro. Uste du *sold out*-aren kulturak "polarizatu" egin duela guztia, arrakastarekiko "esposizio bat" existitzen dela, eta erdiko punturik ez dagoela ematen duela. "Baina giroa erabat desberdina da makrokonzertu batean edo areto txikian".

BEC-A BETETZEKO GOSEA

Publikoaren arteak luzatutako galde-

ra batek solasaren ordura arteko tonua zorroztu du: orain dela bost urte, Berri Txarrakek bi aldiz bete zuenean Navarra Arena, hori *guaya* zen, eta orain BECa betetzea ez da horrenbeste?

Kojo-k oroitu du iraganean nola bete zituen Negu Gorriak taldeak Donostiako Belodromoa-eta, edukiera gutxiagokoak ziren espazioak, baina pandemiaren geroztik-edo nabaritu da enpresa batzuek negozioa ikusi dutela. Era berean, zirkulu bizioso bat ere bada: BECa betetzen duten taldeak kontratatzen dituzte udalek, diru asko ordainduta, zenbait kasutan udaleko kultura departamentuaren zati handi bat erabilita. Kultur programatzaileak BECa betetzeari begira ibiltzen dira beste ezeri baino gehiago, mahaiki-deen esanetan.

BECa betetzea, baina, "ez da hemen soilik gertatzen", Baleztenaren arabera: "Talde espainolek ere gauza bera dute buruan, Madrilgo Wizink betetzea. Bote-re erakustaldi bat dira". Idigorasek uste duenez, gainera, "era desproporzionatua" gertatzen dira; marketinean abila dena, nahiz hainbeste entzule fidel ez izan, kapaza izan daiteke sekulako estaldioa *ti-ta* betetzeko.

Arangurenak ipini dio gilda gaiari: "Orain arte esaten zen kanpokoek hartzen zituztela horrelako espazio handiak, eta entzun izan dut guk ere egin behar genuela, bestela beti besteek egingo zutelako. Bale. Baina [hori esaten duena] ez da planteatzen ari Polizia izateko oposizioak egitea. Beraz, marra gorriak ere badaude". ●

ARTEA ETA POLITIKA

Hoberena etortzeko dago-eta
 LARRAITZ FAGUNDEZ OSA  DOSPORDOS / ARGIA CC-BY-SA

Artearen eta politikaren arteko harremanari buruzko eztabaida tradizio luzekoa den arren, ez da agortu, eta eguneratu eta garaiari egokitu zaio. Nola ulertzen du hizlari bakoitzak?

“Bi korronte nagusi egon dira auzi honi heltzeko”, sintetizatu du Mikel Cthulhu Cosmic Tentacles Studio-ko kideak: “Bata, artea borrokarako erreminta gisa ikusi duena, eta bestea, artea arte hutsagatik egin behar dela dioena, politikarekin zikindu gabe. Jakin bada-kigu, baina, artearen atzean intentzio politikoa beti dagoela, era batekoa edo bestekoa”.

Bizipen propiotik hitz egin du Belén Nevado antzerkilariak. Teatroa “deseraikitzeke erreminta” izan da beretzako, ideiak modu sortzailean plazaratu eta irudimenaren bidez hausnarketa pizteko. “Egiten denaren atzean, beti dago mezua”, dio, baina ez da kontzientea halabarrez. Bere kasuan, “erraietatik ateratzen zitzaiena” egiten zuen, eta “feministak etorri behar izan ziren esatera hori feminismoa zela”. Horrek norabide bat eman ziola uste du.

Musikara etorrira, J Martinako Kattalin Barcenaren arabera, “oso garai despolitizatuak” bizi ditugun arren, egiten den musika ez da inola ere apolitikoa, “inoiz baino gehiago dago integratua

ideologia kapitalista edo ez-iraultzaileetan”. Horregatik, ez dago politikoa ez den musikarik, bere iritzian. Areago: “Prozesu artistikoan uneoro hartu behar dituzu erabakiak, zer esan, norekin sinatu eta abar, eta erabaki horiek guztiek dituzte ondorio politikoak”. Bereizi behar dena zera da, beraz: kontzientzia eta konpromiso politikotik sortzen den musika; eta hori egiten ez duena, horretarako bokaziorik ez duena.

“Posizionatzen ez direla diotenek nagusiaren ahotsa erreproduzitzen dute”, berretsi du Fermin Muguruza musikariak. Politikariak ez beste inork politikan inplikatu behar ez dutenaren ideia gainditua dagoela uste du, historia josita dagoela kontrakoa frogatzen duten adibideez: “Gizartea eraldatzen lagundu duten mugimendu guztiek izan dute soinu banda propioa, ikusi besterik ez dago Kongo, Jamaika, Aljeria, Hego Afrika...”.

BESTE GARAI BAT

Hizlari guztiek esan dute, ordea, beste garai batean gaudela, eta gizartea aldatu den bezala, beste era batekoak direla egungo sorkuntza-prozesuak eta esperientzia artistikoak. “Zarata handia” bizi dugula sentitzen du Cthulhuk, sare sozialen eraginagatik, besteak beste, eta arrazoi franko ditugula pesimista izateko. Nevadok ere esan du, pentsa-

tzen jarrita, beltz ikusten duela mundua. Unean unekoa soilik bizi dugula iruditzen zaio, dena pasatzen dela azkar, markarik utzi gabe.

Bere belaunaldiaren sentimendu orokorra deskribatu du Barcenak: etorkizunik ez, gauzek hobera egin dezaketen ortzimugarik ez, proiektu kolektiborik ez kalean. Eta horrek eragina du musikan, jakina. Gizartean ez badago kolektibotasunik, bakoitzak beretik sortzen du: “Niri hau edo bestea gertatzen zait, iritzia ematen dut edo posizionatzen naiz une jakin batean agian”. Baina musikak ez du islatzen kolektibo baten proiektua: “Orain dagokigu pentsatzea hori nola egin, irudimen politikoa eta artistikoa erabiltzea, erreferente historikoak ezagutzea”.

Bere belaunaldiko jendeare ere nabari dio etsipena Muguruzak. Beti izan da nostalgiaren aurkakoa, baina anaia hil zenetik, aitortu du, gustuko duela lehengo kontuez eta borrokez oroitzea: Cicatrizekin Gasteizen gertatutakoak, bertan ziren gazteek Polizia nola bota zuten atzera jai alternatiboerako eraso egin ziotelako... Argi dio, ordea, inoiz ez duela esango iragana beti hobea denik: “Inola ere ez, hoberena etortzeke dago”.

ETA ZER DATOR GUREAN?

Zentzu horretan, euskaraz musika egi-



Kattalin Barcena, Mikel Cthulhu, Belen Nevado eta Fermin Muguruza.

ten ari den belaunaldi berriak ematen dion pozaz mintzatu da Muguruza, zirrara ahotsean ere nabari zaiola. “1990eko hamarkadan zigilu bat egin genuen estilo guztietako taldeek euskaraz kantatzeko aukera izan zezaten, eta orain dagoen eszena ikustea hunkigarria da, baita zirkuitu alternatiboa indartsu dagoela sentitzea ere”.

Poza azaldu du Barcenak ere. “Hala ere”, gehitu du: “Ezin dugu ahaztu Euskal Herrian BECa betetzen ari diren taldeak egiten ari direna; ezeri buruz ezer ez esatea, testuinguru honetan, esperantza faltsua sortzea da jendeari, positibismo faltsua sustatzea”. Amorrua adierazi du Nevadok ere, fribolitatea gailendu dela iruditzen baitzaio, erosoe gi bizi garena. Gertatzen ari den guztia- rekin eta, zehazki, palestinarren aurka- ko genozidioarekin, ez du ulertzen nola den posible “dena gelditu ez izana”.

Ilusioz bizi du Muguruzak J Marti- naren kontzertuetan, adibidez, jendea kantatzen eta dantzatzen ikustea, eta indar horrek eraman behar gaituela adierazi du: “Kasu egin behar diogu datorren belaunaldiari”. Komunitatea eta bizitza ospatzen jarraitu behar dugula uste du, eta musikak hil hala biziko pa- pera duela horretan.

Erronkak ere badira. Esaterako, eus- karara ekartzea Euskal Herriko beste- lako errealitateak. Muguruzaren esa- netan, orain dela hogeitaz bazirudien atzerriko musika etorriko eta egonkor-

*“Gauzak antolakuntza
politikoak aldatzen
ditu, eta arteak
mugimendu hori
lagundu behar du”*

tuko zela gurera; Afrika Bibang-en adi- bidea ipini du, Ekuatore Gineako jato- rriko musika beltza. Baina ez da hori gertatu, Muguruzak dioenez: “Hori falta zaio euskal musikari, ez dugu lortu bat- ztea Euskal Herrian dagoen kultur aniz- tasun guztia”.

ZER ESAN DAITEKEEN ETA ZER EZ, NORK ERABAKITZEN DU?

Zentsura eta errepresio kasuez jardun dute hizlariak. Estatu egituren ahul- dadea erakusten ote duten galdetu du Cthulhuk. Barcenaren ustez, ordea, ez dugu geure burua defendatzeko gaita- sunik. “Eta larriena kartzela da”, gehitu du, “baina zentsuraren eraginez zentzu komunean normalizatzen ari da adie- razpen askatasunik eza”. Jasaten ari garen “ofentsiba kultural bortitza” ere salatu du Muguruzak, bereziki zineman,

eta adibide bezala jarri du *La Infiltrada* filma.

Komunitatearen barneko kontraesa- nak eta tabuak azaleratzeko ere balio du arteak. Nevadok ondo daki. Antzezlan batean, hilekoaren odolarekin zikindu zuen arrosario bat, borobila iruditu zi- tzaion: “Kanpora zuen arrosarioak gure obarioetatik!”. Harritu egin zuela dio jendearen erreakzioak, punkenei eta militanteenei ere “gehiegizkoa” iruditu zitzaizela, antza.

ARTEAREN AHALAK ETA EZINAK

Gauzak horrela, zer egin? “Errealismo kapitalista” arrakalatu behar dugula uste du Mikel Cthulhuk eta horretarako arteak baduela abantaila, politika edo fi- losofiarekin alderatuta, irudimenari eta emozioei zuzenago apelatzen dielako. Barcenaren ustez ere agitaziorako balio du arteak, amorrua sentitzeko, kolekti- boa indartzeko, eta beharrezkoa da. Bai- na arteak berak bakarrik ez ditu gauzak aldatzen, ikuspegi zabalagoa behar da. “Gauzak antolakuntza politikoak alda- tzen ditu, eta arteak mugimendu hori lagundu behar du”, esan du Barcenak.

Ildo berean, palestinar musika talde batek elkarrizketa batean esandakoa oroitu du Muguruzak: “Badakite musi- kak ez duela geldituko gerraren maki- neria, baina Bertolt Brecht-en esaldi fa- matua errepikatzen dute, *Garai ilunean, kantatuko dugu? Bai, garai ilunari buruz kantatuko dugu*”. ●



Hitz gezidunak

| | | | | | | | | | | | | |
|--|--|---|--|---|-----------------------------|-----------------------------------|--|---------------------------|----------------------------|--|--|--|
| JUJE PATXADA | | BAILARA, IBAR TRENBIDEE- TAKO HAGA | | BALANTZA, OREKARIK EZA | | JARAMON NAZIONAL NAZIO GABE | | UKIMEN ROENTGEN | | HEGAZTI MOTA HIZKUNTZEN FAMILIA | | MASKARA PERTSO- NAIAREN IZENA |
| | | | | JOERA POLITIKO IKUSI (LA- BURDURA) | | | | | | | | |
| PERTSO- NAIAREN ABIZENA MIRARIZ | | | | | | | | SEKULA AZKENA | | | | |
| | | | | | | | | | DA ERASO | | | |
| EGINKIZUN, ZEREGIN DOZENA ERDI | | | | EDOZEIN GAUZA | | | | | | OINARRIZKO EDARI TRAGEDIARI DAGOKIONA | | |
| | | | | | | | | | ANESTESIKO MOTA NANO | | | |
| 2000 ERROMATAR ZENBAKIZ | EGILE ATZIZKIA BEKOZKO ILUNEZ | | | | | | | | | | | |
| | | 500 PERTSO- NAIAREN EZIZENA | | | | | | | | EGUZKIAREN JAINKO EGIPTOARRA ZITARA | | LEHEN BOKALA ONGI |
| UKAMEN EZAGUTZEN EZ DENA | | | | ZILARRA A HIRUTAN | | EGOKIA HEGAZTI MOTA | | LOGOTIPO | | | | ATOMO KARGATU |
| | | | | | | | | JARRI ARANA A BARIK | | | | |
| BILOA NORABAI- TERKO | | | | | BELDUR IZUGARRI KILOA | | | | | | | |
| | | | | | | | | UGARI, NARORO | | | | |



Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 8 | | 7 | 1 | 9 | 5 | | |
| 9 | 6 | | 5 | | 4 | | | |
| | | | | 2 | 3 | | | 9 |
| | | 5 | | | 1 | 3 | 6 | 7 |
| 6 | 7 | | | | | | | |
| 1 | 3 | 9 | 4 | 7 | | | 5 | 8 |
| 4 | 2 | 6 | | | | 1 | | 3 |
| 3 | | | | | 2 | | 4 | |
| | 1 | | 3 | 4 | | | | 2 |

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- 1. Sodio kloruroa.
- 2. Martxan.
- 3. Punta, gailurra.
- 4. Gonak.
- 5. Irungo auzoa.

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

EBAZPENAK

- 1. GATZA
- 2. ABIAN
- 3. TINIA
- 4. ZAIKAK
- 5. ANAKA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 8 | 4 | 7 | 1 | 9 | 5 | 3 | 6 |
| 9 | 6 | 3 | 5 | 8 | 4 | 7 | 2 | 1 |
| 7 | 5 | 1 | 6 | 2 | 3 | 4 | 8 | 9 |
| 8 | 4 | 5 | 2 | 9 | 1 | 3 | 6 | 7 |
| 6 | 7 | 2 | 8 | 3 | 5 | 9 | 1 | 4 |
| 1 | 3 | 9 | 4 | 7 | 6 | 2 | 5 | 8 |
| 4 | 2 | 6 | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | E | H | Z | V | A | N | A | K | O | I |
| M | E | H | Z | V | A | N | A | K | O | I |
| E | P | E | A | V | A | N | A | K | O | I |
| U | U | U | U | U | U | U | U | U | U | I |
| Z | I | N | O | I | N | O | I | N | O | I |
| O | G | O | G | O | G | O | G | O | G | I |
| R | E | R | E | R | E | R | E | R | E | I |
| O | L | O | L | O | L | O | L | O | L | M |
| V | A | V | A | V | A | V | A | V | A | M |
| I | O | K | I | O | K | I | O | K | I | I |



Oasi bat hiri erdian

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA  IBAI ARRIETA

Donostialdean sortutako musika ekimena da Balio Dute, autogestioa zimendu eta lan-tresna gisa hartuta, musikariak prekario, bakarti eta txiki nahi dituen industria musikalaria kolektiboki aurre egitea dute helburu. Elkar-laguntzan ainguratuta, askotariko jardunetan dihardu kolektiboak. Horietako bat da, hain zuzen, Kutixik jaialdia.

Aretoan pixkanaka jendea sartzen ari dela, etxeko berotasuna aipatuta ekin dio Neu Troia taldeak, behelainotan nola, giro malenkoniatsu eta barneraikoia sortzen. Betetzen ari da aretoa eta marmar sarkorra entzuten da atzealdetik. Presentzia eta patxada eskatzen duen musika da, eta haatik, arriskutsua izan daiteke zuzenekoaren proposamena. *Arriskuaren Xarma*, behelainotan sartzeko prest dagoenarentzat.

Ireki da berriz oihal beltza eta ohol-tzan da Mirua taldea, 2020an hasitako etaparen azken aurreko geltokian. Pop klasikoko melodia eta instrumentuen, indiaren eta elektronikaren nahasketa dakarte. Zuzenekoaren lehen zatian

arazo teknikoek oztopatu dute musikariak eroso aritzea, eta erreparorik gabe partekatu dituzte sentsazioak publikoarekin. Ez zait musika gustatu, bai ordea haien jarrera; *Egunak Uzten Ez Dienetan* eszenatokian egotekoa.

Hirugarren taldea hasterako goraino dago aretoa. *Bañolet* filmaren soinu banda biltzen duen egitasmoa da Bloñ, berau sortzeko osatu zen taldea (goiko argazkian). Filmerako sortutako unibertsoa oholtzaratu dute, poetikoa eta berezia; sehaska kantu goxoetatik, metal girorainoko mugimenduen jolasa, intentsitate eta kolore asko bilduta. Eta jolas horrek utzi digu gaueko kutixiarik ederrena: oilo ipurdi eta begi umel aldra baten isiltasun izoztua, Maia Iribarneren eta Paxkal Irigoyen magiari beha, *Eihera* abestian zehar. Bukatu denean, isiltasuna hautsi du publikoan barnebarnetik ateratako oihu batek: "Uala!". Deskubrimendu bati darraion hotzikara epelarekin bukatu dut zuzeneko.

Tatxers hirukoteak eman dio gauari segida. Himnoei, melodiei, bateriari eta

KUTIXIK JAIALDIA

NON: Intxaurrendoko Kultur Etxean, Donostian.

NOIZ: Urriaren 26an.

ezpatei, guztiei distira aterata, zuzeneko bikaina eskaini dute. Eskaini digute, beste behin, oasi bat hiri erdian.

Jaialdiko azken kutixia Mice izan da. Baretasunean sendo, izarrarteko bidaian. Baina gauak aurrera egin duela nabaritzen da giroan eta marmarra azaldu da berriro. Isiltasuna eskatzeko oihuak ere atera dira dantzan ari ginenon artetik. Eta egon da marmarraz gaindi musikariei zer jo eta zer ez esatera heldu denik ere. Gizon ahots horien aurrean jarri diren feministei eskerrak emanez bukatu da zuzeneko.

Laurent Garnier eta David Brun-Lambertez oroitu naiz etxera bueltan. *Electroshock* lanean diote dantza-pista bat ez dela inoiz ere leku neutroa; oroz gain, askatasun eta transgresio-eremua dela, beste inon ez bezala, belaunaldi berri bakoitzak aurre egin beharreko erronkak biltzen dituen. Gure erronketako bat hiri erdian kutixiez oasiak eratzea eta horiek zaintzea izango da agian; eta oasiak ere okupatzera ohituta dagoen gizentasuna bertatik ateratzea. ●



LIBURUA

Irribarrez irakurtzeko



PELLOKERIAK

RUBEN RUIZ

ILUSTRAZIOAK: JOSEBA BERAMENDI, EXPRAI.

ELKAR, 2022

XABIER ETXANIZ ERLE

Ruben Ruizek kontakizun laburrez osaturiko obra berri bat eskaini digu. Ez dira mikroipuinak, kontakizunek, modu independentean irakur badaitezke ere, badutelako lotura bat: protagonista, Pello, ateraldi bitxiak dituen mutikoa, eta hari gertaturikoak.

21 mikrokontakizunek osatzen dute liburua eta irakurleari berehala datorkio burura Ruben Ruizek idatzitako *Anekdotak* (Pamiela, 2008) hura, Lizardi eta Euskadi sariak eskuratu zituen lana. Oraingo honek ere irabazi du dagoeneko sari bat: Mikel Zarate 2024.


Kontakizun laburrak direla aipatu dugu, anekdota, gertakari, burutapen

edo ateraldi baten istorioak. Batzuetan ideia edo gertakari baten narrazioa dugu (eskolan bullyinga jasotzen duenaren kasua, edo ahari hotza Maritxu Teilatukoari jartzen diona, esaterako), beste batzuetan hitz jokoeak dute pisurik handiena, majikoak/magikoak; katuaje/tatuaje... eta bestelakoetan gertakariak berak duen umorea. Baina modu batean nahiz bestean umore hori da liburuan zehar mantentzen dena.

Egileak, ilustratzailearen laguntzarekin, mutiko bihurri samar (edo agian etorri handikoa esango beharko genuke) horren egunerokoan sartzen gaitu. Eskolak pisu handia du narrazioetan,

irakasleen jokabidea edo klaseko ariketak (ipuin laburren lehiaketa, inauterriak, azterketa), esaterako, baina etxeak, gaixotu den aitona ingurukoek eta eguneroko istorioek ere beren garrantzia dute liburuan. Gaiak erakargarriak izateaz gain, idazkera ere oso ongi zainduta dago; labur eta zehatz, didaktismotik urrun, hizkuntzarekin jolas egiten du egileak, eta idazkera literarioa erreibindikatu.

Azkar irakur daitekeen obra dugu *Pellokeriak*, jarraian nahiz zatika, ozenki nahiz isilik, bakarka edo taldean, baina beti jolasa, dibertimendua eta gozamen sentimendurekin... irribarrez. ●



MUSIKA

Eneritz Furyaken tiroak kontsumo ereduari



XALBA RAMIREZ


Disko lasaia edo dinamita bat eguneroko patxada merkean? Popa edo punka? Hitz esana edo melodia? Harmoniak edo disonantziak? Eneritz edo Furyak?

Beti bezala, sailkaezinen kategoriora joan da zuzen-zuzenean irundarraren *hhh* lana. Aurrekoan ere hitz horiek erabili genituen *Emadan* azaltzeko: “Fabrikazio sistematik at” dago –eta egongo da– Furyaken *Emadan*. Hemen ez duzu topatuko euskal merkatu txiki horretan hegemoniatxo bilatuko duen undergroundez edo bazterrekoaz mozorrotzen den artistarik. Autentikotasun sena bere-berea du Furyakek, ezarritakoaren aurrean *luddita* baten antzera: erre azken pieza!”.

Oraingo honetan, elektronikara jauzia are nabarmenagoa da, eta lehen

piezan Berlingo techno jaialdi batera egiten dugu salto, zuzen-zuzenean. Luzaz, bigarren kantua, single itxura handiena duena da. Baina bere singleek ere behar dute arreta. Eta hor ere aldarrikapena: “Ni izateari uztea, zer?”. Eta Fer Apoarekin kolaborazio berezia *Azkenagina*-n.

Arretaren ekonomia izan da XXI. mendean gehien garatu den industrietako bat. Ruperrek kantatzen zuen Hans Magnus Enzensbergerraren letraren moduan: “Kausa zuzenaren alde borrokatu beharrean biruela eta barizen kontra ari dira”. Total, gure arreta gailu estupidoetara bideratzeko milioiak inbertitzen diren garaiotan, Furyakek ez dizu erraz jarri nahi, eta arreta eskatzen du, baina zure aldetik jarri behar duzu.



HHH
ENERITZ FURYAK
AUTOEKOIZPENA, 2024

Hori da onena. Mendi bat igotzea bezala. Zure aldetik jarriz gero, ateratzen dituzula harribitxi mordoa. Disko honetan, bereziki, kolore mordoa margotzea lortu du. Aipatu hasierako elektronika piezetatik, intimo, eta are, polit diren pasarteetara —ulertu “polit” ez dela zertan izan “on”—. Diskoaren amaiera heldu denarentzat Hatxerekin kolaborazio ederra, eta buklean entzuteko *x* eta *Antzinako hondakinak*.

Bilaketa etengabea da Eneritz Furyaken ibilbidea. *Emadan*-en tiroarekin asmatu bazuen, orain bere arma propioa eraiki duela esan dezakegu. Eta kontuz, orain arte behintzat, ez diolako inoiz tirorik egiteari utzi. Ruper berriz: “Idiotak kontsumoan baino pentsatzen ez duzuenak”. ●

Ipurgarbitzaileak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ai, zenbait futbolzalaren izaera bipolarra. Egun batean maiuskula handiagoak falta zaizkie sareetan aldarrikatzeko Imanol Alguacil bota egin beharko luketela segituan, Aritz Elustondok ez lukeela 2. B mailan ere jokatu eta Sheraldo Becker baino hobe litzatekeela Realaren hegala horretan Jon Manteca defuntua jartzea, makulu eta guzti. Baina gero hurrengo jardunaldia dator, Realak Bartzelonari irabazten dio eta, hara, bat batean Imanol estrategia hobea da Carl von Clausewitz baino, Elustondoren partidu titanikoa goraiatzeko superlatibo absolutuak bakarrik erabili daitezke eta Beckerrengatik sentitzen hasten dira gauza batzuk, zeinak bi minutuz aztertuz gero, beren heterossexualitatea krisian jarriko bailuketen.

Baina hori dena desoreka bipolar futbolzalearen oinarritzko pack-a besterik ez da. Beste gauza bat da nire ustez, bipolaritatearen premium bertsioa alegia, pasa den ostegunean Tel Aviveko Maccabiren jarraitzaileek Amsterdamen egin zutena. Joan ziren samaldan, Mossadeko agente eta guzti, Ajaxen aurkako partidura; ibili ziren hiriko balkoietan zeuden bandera palestinarak kentzen eta erretzen; txikitu zuten taxi bat; egurtu zituzten -lekuko batzuen arabera, burdinazko barrekin-zenbait bizilagun; kantatu zituzten oda lirikoak -“bihar Gazan ez dago eskolarik, ez baita geratzen joango den umerik”, adibidez-; eta estadio barruan ere, garrasi batean aritu ziren Valentziako uholdeetan hildako jendearen omenezko minutuko isilunean.

Eskuzabalak Maccabiren zaleak: ematea gustatzen zaie. Jasotzea, ez hainbeste. Zale horietako batzuk jipoi-tu baitzitezuten gero; eta haietako bost ospitaleratzea nahikoa izan zen sionul-tren hizkera erabat transmutatzeko:



hau pogrom bat da; gu eta Anne Frank, antzeko pareko; eraso antisemitak; tar, tar, tar.

Inor ez harritzeko, agintari nederlandarrek berehala erabili zuten teknologia linguistiko melodramatikoena futbolzale israeldarren aurkako indarkeria salatzeke, kupituta, ikusirik Mr. Hyde nola bihurtu zen urratu batzuen poderioz berriz ere Jeckyll doktore. Babesa, erabatekoa: ostiralean, Tel Aviveko taldea “animatzera” joandakoak guardia polizial eta guzti garraiatu zituzten Amsterdam-Schiphol aireportura, non ohiko hegaldi kopurua bikoiztuta, denek azkar hanka egin ahal izan zuten.

Niri berriz, aireportu horren izena irakurtzean, 1992an Amsterdamgo Bijlmermeer auzoaren kontra amildu zen hegazkin bat agertu zitzaidan garunaren zimurretan. Ofizialki loreak, lurrrinak eta gailu elektronikoak garraiatu behar zituen El Al konpainiako Boeing bat Amsterdamdik Israelerantz abiatu, berehala matxuratu eta etxebizitzablocke baten kontra lehertu zen urte hartako urriaren 4an. Herbehereen historiako abiazio-istripu handiena da.

Eta espioien pelikula bateko gidoia dirudien materiala ere bai, momentuan hildakoez gain -47 pertsona ofizialki; eraikinean paperik gabeko lagun asko bizi zela kontuan izanda, gehiago ere bai segur aski-, Bijlmermeerreko bizilagun askok osasun-arazo larriak izan baitzituzten orduz geroztik. Bizi osorako gaixotu ziren haietako batzuk.

Eta zenbat eta gehiago ikertu, orduan eta gauza arraragoak agertu ziren. Sei urte pasa arte ez zuten agintari nederlandarrek egia aitortu: Israelek erabiltzeko material militarra zeraman hegazkinak -munizioak, lehegailuak eta sarin gasa fabrikatzeko osagaiak, besteak beste-. Koktel horren konbustioa arnasteak gaixotu zituen istripua gertatu zen lekuan bizi zirenak.

Aurrekari hori ezagututa, askoz hobeto ulertzen da Herbehereetako agintariek nola bilakatu dituzten orain Maccabiko astakirten biolentoak eraso antisemiten biktima. Arma kimikoak lore bihur badaitezke, esan nahi du Israel tartean denean, edozer transformatu daitekeela beste edozertan. Ez da desoreka bipolarra: ipurgarbitzailearen autoengainua da. ●

Gosex

Sexuaren inguruko
BIDEOPODCAST berria




LEHEN ATALA: PORNOA

Gosex zara?

**Azaroaren 28tik aurrera, ostegunero,
bideo berria *gaztezulo.eus*-en.**

Koldo Rabadan Izagirre

Superbotereak



10 urrats
eskola
eraldatze
bidean

Haur guztiek dute
superbotereren bat,
helduok hala ikusi ez arren.
Erabil behar genituzke
eskola-proiektua
diseinatzerakoan.

Liburua **16€**
+ Bidalketa gastuak



Irriarena

Eskaintza berezia

Azaroaren 29ra arte:

ARGIAko kide bazara **14€-an** (+ bidalketa gastuak)
azoka@argia.eus (+34) 943 37 15 45

Aurkezpena

Azaroaren 27an Larraulgo eskolan, 17:30ean
Koldo Rabadan egilea eta beste hainbat irakasle
Hitzaldiak antolatzeko: solasaldiak@argia.eus



Lehenestearna



Konfiantzarena



azoka.argia.eus